

GUaixe.eus



Aitor Zubieta
frontoietara
bueltan



Kirolak >> 11

eLe festak euskaldun berriak eta
Mintzakide programan luze egon
diren euskaldunak omendu eta
ahalegina eskertu zien



Ezkaatza >> 3



Isildutakoen minak badu tokia Olaztin

>>00

**Baratzetarako
eta loreetarako
konposta
eskura**

>>7

**Azienda
mendirako
bidean dago**

Urbasa-Andia natur
parkera joan den
urtean 34.214 buru
igo zituzten abeltzai-
nek

>>9

**Aholkularitza
zerbitzua
ekintzaileenda-
ko Altsasun**

Garagarrilaren 6tik
aurrera, astelehen
goizetan, Gure Etxea
eraikinean

>>3

**Bakaikuko
galdeketa
azaroaren 27ra
atzeratuta**

>>5



**Internet banda
zabala lortzeko
bideak
aztertzen**

>>7

**Aldasoro eta
beste zortzi
asteartean
epaitzen
hasiko dira**

>>8

**Lore azoka eta
gaztetxearen
urteurrena.
Asteburu betea
Olaztin**

>>9

**Mariñelarena-
ren lanen
erakusketa
ibiltariaren
mustutzea**

>>14

**Udaberriko
kontzertua
eskainiko du
Etxarriko
abesbatzak**

>>15



**Arakil
erromeriatik
erromeriara:
Itxasperrira
eta Aralarrera**

>>6



GOIERRIKO CAMPUSA

MAIATZAK 19

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN
NAVARRA

CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com

www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU

Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



Asier Galarza Zubiria
ZORIONAK potxolo!!
Ondo pasa zure egunean ta muxu pila bat famili guztion partetik.



Iñigo
ZORIONAK Iñigo!!! Larunbatean zortzi urte beteko dituzu; ongi pasa zure urtebetetze egunean! Ireia, Uxue, Maialen, Patxi eta Iker.



Inhar Zabala Beraza
ZORIONAK!!!!!! Urte bat ia... Muxu handi bat aiatxo, amatxo eta famili guztian partez.



Elai Gomez
Maiatzaren 16an, 14 urte. Zorionak preziosa. Asko maite zaitugu.



ZORIONAK BOLTIO ETA BE-SARKADA HAUNDI BET! Luis, Oihan ta beste geñakuen askatasune ospattu biyertien hi urtebetetze egunekue ospatuko yau! Eutsi goiari ta JTK! Hi launek.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

maiatzak

13-19

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Frenetik eta Raperos de Emaus & The Titanians. Maiatzaren 14an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko plazan.

Dj festa. Maiatzaren 14an, larunbatean, 23:59ean Arbizuko Argi Bidea elkartean.

Musika eta literatura. Maiatzaren 15an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan. **Etxarri Aranazko abesbatza.**

Mundo intrépido. Maiatzaren 15an, domekan, 19:00etan Olatzagutiako kultur etxean. **Golden Apple Quartet.**

Antzerkia

Urtsua, leyenda de luz y niebla. Maiatzaren 14an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Zarrapastra teatro.**

Bakarrizketa

Bakarrizketak. Maiatzaren 13an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean. Filo-Tajore eta Hurrikane.

Mendi irteerak

Etxarri-Ataun. Maiatzaren 15ean, igandean, 7:00etan. **Larrañeta mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Aralar-Altsasu. Maiatzaren 14an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 100 km. **Zikloturista taldea.**

Irantzuko monasterioa. Maiatzaren 15ean, domekan, 7:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 82 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Guk ibilitakoak gureak dira. Maiatzaren 15ean, igandean, 11:00etatik 15:00etara eta 16:30etik



Frenetik Altsasuko plazan izanen da bihar, Gazte2aste festaren barruan.

20:00etara Etxarri Aranazko estalopean. **Pello Mariñelarenaren lanak.** Egitarau osagarria ere.

Nire lorategiko arrosari. Maiatzaren 25era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Itziar Nazabal.**

Hitzaldiak

Interbentzio sionistaren aurrean, Palestina aurrera. Maiatzaren 13an, ostiralean, 18:30ean Arbizuko Argi Bidea elkartean. **Hizlariak:** Askapenako brigadistak.

Guifinet proiektuaren aurkezpena. Maiatzaren 17an, asteazkenean, 17:30ean Lakuntzako Sakanako Mankomunitatearen egoitzan. **Hizlaria:** Roger Baig, **Guifinet fundazioko kidea.**

Mahai-ingurua

Preso gaixoak. Maiatzaren 14an, ostiralean, 19:00etan Iturmendin. **Hizlariak:** Bautista Barandalla eta

Gotzon Gogortza.

Pintura

Nire lorategiko arrosari, performancea. Maiatzaren 13an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Itziar Nazabal, Irantzu Gonzalez eta Jorge Cordon.**

Zuzeneko pintura saioa. Maiatzaren 19an, ostegunean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Itziar Nazabal.**

Azokak

9. lore eta landare azoka. Maiatzaren 15ean, domekan, 10:30etik 14:00etara Olatzagutiako plazan.

Bestelakoak

PreTxirrinka. AHT eta beste azpiegitura erraldoien aurkako jaia. Maiatzaren 13an, ostiralean, 21:30etik aurrera Altsasuko gaztetxean.

Burdin hariak eta plastikozko goilareak (maitasun lubrikatua).

Maiatzaren 13an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan. **Oier Gonzalez eta Markel Ormazabal.**

Dantzalarre garbitzeko auzolana. Maiatzaren 14an, larunbatean, 9:00etan Bakaikuko elkartetik abiatuta. **Kultur Batzordea eta BGA.**

Julenen omenaldia. Agur eta ohore lagun. Maiatzaren 14an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Iturmendin.

Maisuen gaztetxearen urteurrena. Maiatzaren 14an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Olatzagutian.

Julenen omenaldia. Agur eta ohore lagun. Maiatzaren 14an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Iturmendin.

9ak libre. Maiatzaren 14an, larunbatean, arratsaldean Etxarri Aranazko plazan. **Kamixetak, auzatea, bideoak.**

Herri kirolak mistoa eta gaitasun-probak (Irurtzungo taldeak). Maiatzaren 14an, larunbatean, 18:00etan Irurtzungo Foru plazan. Ondoren, herri afaria.

Dardo lehiaketa. Maiatzaren 19an, ostegunean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 13an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Borrokarekin gazteok ekin. Maiatzaren 14an, larunbatean, 20:00etan Arbizuko plazan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Olaztiko memoria historikoaz
- Joxe Aldasoro, auzipetua
- Aitor Zubieta berriro kantxetara

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE



MAITANE INTXAURRAGA

Gaur, 10:00etan, Guaixen **ON-LINE ELKARRIZKETA**
Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez

ezkaatza >>

>>

Ekintzailletza sustatzeko bulegoa Gure Etxean



Cederna-Garalurrek ekintzailletza sustatzeko aholkularitza Gure Etxea eraikineko lehen solairuko 1 gelan izanen da garagarriaren 6tik aurrera, astelehenero, 9:00etatik 15:00etara

Altsasuko Udalak eta Cederna-Garalurrek sinatutako hitzarmenaren ondorioa da ekintzailletza sustatzeko aholkularitza zerbitzua astelehenetan Altsasun eskaintzea. Garapen agentziak Arbizuko Utzubar industrialdean Sakanaguztikoko ekintzailerei zerbitzua eskaintzen die. Susana Mendinueta aritzen da horretan eta berak azaldu digunez, Altsasutik erabiltzaile asko joaten zirenez eta populazio handiena duen herria denez, Burundako herrian aholkularitza zerbitzua eskaintzea egoki jo dute. Zita hartuta, edozein sakandarrek erabili dezake Arbizu edo Altsasuko zerbitzua.

Hitzarmena sinatzeko aukera Altsasuko Udalaren Ekonomia Garapenerako Batzordean aztertu zen eta guztiz garrantzitsua dela ikusi zen, gure herrian ekintzailletza sustatzeko. Izan ere, bertan dago oraina eta etorkizuneko garapen ekonomikoaren oinarrietako bat, azaldu du Javier Olló Martínez alkateak. Gaineratuz, "momentu honetan pairatzen dugun langabeziaren aurrean ekintzailletza enplegu berriak sortzeko aukera paregabea da". Ollók gogora ekarri du Altsasuko eskualdean langabeziak behera egin zuela martxoan eta apirilean, %3,04 eta %2,58 hurrenez hurren, baina egoera latza izaten segitzen duela.

Hitzordua eskatzeko

948 567 010 edo 639 900 336 edo sakana@cederna.es

>> Altsasu



Euskaldun berriei euren ahaleginagatik esker ona adierazi zieten larunbatean Altsasun, eLe festan.

Euskaldun-berriei txalo

eLe festan 9 euskaldun berri eta Mintzakide programako 7 kide omendu zituzten

Euren burua euskalduntzeko egin-dako ahalegina eta euskaldun komunitatea handitzea erabakitzeagatik esker ona azaltzeko propio antolatu zen eLe festa. Unibertsitateko graduazio baten modura aitortza jaso zuten guztien izen-abizenak zerrendatu zituzten eta jendaurrera atera ziren. Haien aurretik euskaldundu ziren beste sakanadar batzuk zain zituzten. Ama- eta

aita-pontekoarena egin zuten azken horiek, eta haien eskutik opari bana jaso zuten omenduek. Haien artean Altsasuko bi zinegotzi daude: Mari Karmen Otaegi eta Javier Paz. Altsasuko Foru plazan egin-dako omenaldiak 100 bat pertsona elkartu zituen.

Omenduek beste opari bat ere jaso zuten, mintzodromoaren bidez euskaraz elkar ezagutzeko aukera. 50 bat pertsona izan ziren hizketaldi saioan parte hartu zutenak. Ordu batean lau gairen inguruan hizketatzeko aukera izan zuten, gai bako-

tzarekin batera hizketa-lagunak aldatuz. Ekitaldia auzatearekin des-peditu zen.

Ikasteko eta praktikatzeko aukerak

Sakanako AEK-k, Sakanako Mintzakide programak, Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak eta Guaixe fundazioak antolatu zuten ibarreko euskaldun berriei eta mintzakideei aitortza egiteko eLe festa. Bide batez, antolatzaileek gogorarazi nahi dute euskara ikasten dutenek Mank-en

Omenaldia

Omenduak	Ama- aita-pontekoa
Javi Paz	Juanan Guerrero
Jose M ^o Rodriguez	Antxon Ramirez
Ines Ormaetxea	Joune El-Marhoum
Mari Carmen Otaegi	Idoia Goikoetxea
Luis Lumbreras	Javi Ziordia
Juan Manuel Sanchez	Marian Mendoza
Mari Gwen Davies	Cristina Romero
Laura La Torre	Cristina Troyano
Ana Krebs	Felix Altzelai
Endika Etxeberria	Izaskun Perez
Lutxi Osinaga	Jokin Huarte
Maite Miguel	Juanki Orellana
Fernando Iriarte	Jose Luis Ojer
Marta Otxoaerrarte	Joxean Marquez
Mariaje Perez	Naiara Perkaz
Martin Zelaia	Inaxio Bergara

diru-laguntza eskatzeko aukera dutela. Bestalde, irailean zabalduko da Sakanako Mintzakide programaren izena emateko epea (doakoa).

>> Burunda / Altsasu

ETB ikustearen alde

Hala agertu ziren Iñigo Aritza eta Txioika ikastolako hezkuntza komunitateko kideak ostiralean. Hizkuntza-eskubideen urraketen kontra, ETB Nafarroan ere leloa zuen pankartarekin kontzentrazioa egin zuten. Lurreko Telebista Digital bidez euskaraz emititzen diren ETBren telebista kateak ikusteko aukera aldarrikatu zuten. Sakanan



Aurreko ostiraleko elkarretaratzea, Txioika ikastolaren aurrean.

ez dago horretarako aukerarik, etxe bakan batzuk salbu, eta ostegune-

tik Iruñerrian eta Nafarroako zati handi batean ezta ere, Industria

Ministerioaren eskaera betetzeko ETBk bere emisioak eten zituelako.

ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldia** gonbidatzen zaitu.
Ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza.

• Goi Mailako zikloak • Erdi Mailako zikloak • Oinarrizko LH

Maiatzak 21, larunbata, 10:00etan

www.goierrieskola.eus

Zeure begiz ikus ezazu.



Klik batekin informa zaitetz.



Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062



Zoila Berastegi

astekoa

Haiek

80 urteez dira hainbeste. Gure belaunaldia gaur bada; atzokoak dira gure gurasoak; eta hereneguna orduan, haiena da. Gugara gazteak, zuek zarete helduak eta haiek dira zaharrrak.

Herenegunetik datoz, udako goxotasuna probestuz, oraindik orain kaleko eserlekuan, aldemenaren konpainian, orduak eta orduak pasatzen dituztenak. Baita esatera zaharrrak eta jada ezezagunak diren hitzak dakizkitenak. Herenegunekoak dira hezurretako minak jota ohean etzanda daudenak edota latino-amerikako emakumeen konpainian kalera pasiatzera ateratzen direnak. Zer esanik ez, medikuaren eta apaizaren hitzak dogmatzat dituztenak. Baratzeko landareak entzuten dituztenak dira; sukaldeko errezetarik goxoenak dakizkitenak. Haiek dira pixoihalak, hortzordeak eta bastoiak erabiltzen dituztenak. Idazten eta irakurtzen ez dakiten jakintsuak dira. Hitz jantzirik gabe, inongo hitzarmenen beharrik gabe, urtez urte, “garapen iraunkorra” praktikara eraman dutenak. Ogi koxkor batek asetu dezakeen gosea ezagutzen dutenak. Haiek dira herenegun.

Eta herenegunekoak dira baita ere ezer ulertu gabefusil bat eskuetan aurkitu zutenak. Tiro egitera behartu zituztenak. Anaia, lehengusu edo lagunak aurka borrokatu behar izan zutenak. Bizilagunen behatz akusatzaileekin bizi behar izan zutenak. Bizilagunak behatzez akusatu zituztenak. Gorpuak hobietan lurperatu zituztenak dira haiek. Haiek dira hobi horietan lurperatuak dauden gorpuak.

Herenegunekoak dira haiek; azala zimurtua duten aitonamona ile txuriak. Eta alboan ditugu, entzun nahi duenarentzat.

barrutik kanpora

Elkartzeko eskubidea eta beharra dugu

Neoliberalismoa krisian dagoela askotan entzun dugu. Thatcher edo Reagan antzinako kontuak direla uste dugu, baina beraiek eta beste zenbaitzuek defendaturiko sistema ekonomikoa gure gizartean bere lekutxo lortu du. Ez dugu merkatu librea defendatzen duen teoria azalduko, adituak ez garelako gehienbat, gure gizartean utzitako aztarnez arituko gara eta nola gizarte eragileen aurkako jarrera mesfidatia hedatu den.

Neoliberalismoa ez da soilik dirua ematen ez duten zerbitzu publikoentzako desagertzea sustatzen duen sistema, bere helburu nagusietarikoa borroka ideologikoan dauka. Publikoa dena txarra eta garestia da, pribatua hobeto doa, gestio pribatua efizienteagoa da... halako mantrak oso errotuak daude gure gizartean eta denok entzuten ditugu egunero taberna, irratan edota gure manifestazioan ere. Sistema ekonomiko alternatibo baten

alde lan egiten dugun pertsonen erronka bikoitza daukagu. Batek kapitalismo basatiak sortzen dituen ezberdintasunak agerian utzi eta borrokatu eta, bestetik, publikoa, dena dena defendatu.

Sindikatuak izan dira beti neoliberalismoaren helburu nagusienetarikoa, langileria batu eta batera borrokan jarri dituztelako. Gaur egun oso gutxietsita daude oro har, baina pentsatu beharko genuke zergatik den

hori. Gure ustez langileriaren aurka egiteko estrategia zehatza da, eta gogoratu nahi dugu sindikatuak ez direla sindikal gintza. Langileok elkartzeko eskubidea eta beharra dute sortzen zaizkien arazoei aurre egiteko. Gizartea antolatzeko eskubidea duen moduan. Kontrakoa, enpresa eta gobernuen aurrean bakarrik aritzea da. Gizarte eragileak behar ditugu eta defendatuko ditugu.

Sakanako Abian

hara zer dien

Erreserba kognitiboa

Alzheimer gaixotasunaren lehen sintomak—memoria falta edo eguneroko jardura konplexuak egiteko zailtasuna, besteak beste—baino askoz ere lehenago agertzen da Alzheimerre eragiten duen garunaren kaltea; urteak eta, batzuetan, hamarkadak lehenago.

Zenbait ikerketaren arabera, garuna maila berean ukituta daukaten pertsonen artean batzuek dementsia sintomak garatzen dituzte eta beste batzuk, aldiz, kalterik jasangabe mantentzen dira. “Erreserba kognitibo” terminoak azaldu nahi du, gaixotasuna

eguneroko bizimoduan eragiten hasi baino lehen, nolako gaitasuna duen garunak garuneko kaltea jasateko. Erreserba kognitibo altuagoa duen pertsona batek modu hobea batean erabiliko ditu garuneko sareak edo estrategia kognitibo alternatiboak eta, ondorioz, denbora tarte luzeagoan mantenduko da garunaren erabilera maila on batean. Hau da, erreserba kognitibo altuagoa daukan arisa gaixotasuna agertuko zaio horrela izan behar bada, baina ondorioak atzeratuko ditu.

Dirudienez, gaitasun hori des-

berdina da izaki bakoitzean, eta berezko ezaugarrien eta norberak bizitako esperientzien ondorioa da. Erreserba kognitiboa honako faktoreen elkarreraginarekin araberakoa izango da: eragile genetikoak eta okupazionalak, ingurumena eta bizimodua.

Erreserba kognitiboa laguntzen duten aldagaietan gehien ikertu dena heziketa mailari dagokiona da, baina gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zaie beste hauei: lan-jardura, bizimodua, okupazioa, harreman sozialak, garuna bizitu egiten duten aisial-

di jarduerak eta jardura fisikoa.

Berriki beste aldagai batzuk ere ikertzen hasi dira eta, dioteenez, elebitasun aktiboak, hauda, urteetan etengabe bi hizkuntza erabiltzeak, funtzionamendu kognitiboa mantentzen laguntzen omen du.

Erreserba kognitiboarekin zerkusia daukaten faktore batzuen garapena gure esku dago, beraz, izan dezagun bizimodu osasuntsua maila fisikoan eta baita kognitiboan ere.

Josefina Arregi Klinika

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Guk ibilitakoak gureak dira

Felix Altxelai Iriarte, Pelloren laguna eta Sarekidea.

Zer egin dezake lau metro²-ko ziega batean bizitzera kondematurik dagoen preso batek, jakinaren gainean medikuen laguntzarik gabe hiltzera kondenaturik dagoela Pello Mariñelarenak, sendabiderik gabe, barnekoa erretzen zion ezinegona eta ezintasuna uxa-

tzeko ihesbide bat aurkitu zuen: bere bizitza labor bezain trinkoan ibilitakoei eutsi eta gazte-gaztetatik ikasitakoa egiten jarraitu zuen; eskuz eta bihotzez sentimenduak hitzez, formez eta kolorez adierazi zituen.

Kartzelan bi urte eta erdi zera-matzala, gaizki sentitzen hasi zen: HIESA diagnostikatu zioten. Laguntza mediko egokirik gabe eta kartzelako osasun baldintza penagarrien ondorioz, hilabete baten buruan espetxe

ospitaletik Parisko ospitale batera eraman zuten hiltzera, agian, Laboak dioten moduan, “kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean”.

Maiatzaren 15 honetan, Sarek Pellorekin egin zuten bidegabekeria gogoratu nahi izan du, berak margotu zituen koadroen erakusketa bat eginez eta idatzi zituen olerkiak errezitatuz; eta, horren bitartez, salatu gaur egun 10 euskal preso politikok eritasun larriekin espetxean segi-

tzen dutela. Erakusketa Altsasu, Olazti, Arbizu eta Lakuntzatik pasatu ondoren, trenean igoko da Iruñera joateko, ekainaren 6an.

Mendekuan oinarrituta presoaren borondatea suntsitzea helburu duen espetxe politika anker horren kontra baldin bazaude, maiatzaren 15ean hitzordua duzu Etxarrin; ez dezakegu utzi Pellorekin eta beste hamalau euskal preso politikorekin egin zutena berriz ere gertatzea.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Felix Altxelai
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gko-munikazioa.eus
ADMINISTRATZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


Gorka Ovejero

 Maiatzak 20, ostirala 10:00etan, Guxien **ON-LINE ELKARRIZKETA**
 Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez.

sakanerria >>

 >> **Bakaiku**

Herri galdeketa azaroaren 27ra atzeratuta

Hauteskunde orokorrengatik bakaikuarrek garagarriaren 19an egitekoa zen galdeketa atzeratzea erabaki dute

Larunbatean egindako bileran bakaikuarrek antolatzen ari diren herri galdeketa atzeratzea erabaki zuten. Gure Esku Dagoko kideak azaldu dutenez, azaroaren aurreneko pausoak ematen hasi zirenean "galdeketa antolatzeko baldintza egokien bila aritu gara lanean. Hasieratik adierazi dugu herri galdeketa prozesu naturala eta herritarra izan behar duela. Bilgune zabala, anitza eta parte hartzailea. Horretarako, testuinguru lasaia beharrezkoa da". Hauteskunde giroak halakorik bermatzen ez duela uste dute, "egoera erabat distorsionatu eta galdeketa beste dimentsio batean kokatzen dute".

Hauteskunde kanpaina indarrean dela herri galdeketa egitea debekatuta dago eta horregatik beste herri batzuetan garagar-

tzaroaren 5era aurreratzea erabaki dute. "Aldaketa honek ez du debekuaren mamua erabat uxtzen. Nafarroan dugun errealitatea kontutan hartuta gainera, ziurtzat jotzen dugu data honetan ere debekua etorriko zela. Ez gaude prest beste herrien kontsultak baldintzatu eta debeku baten aurrean jartzeko". Azaroaren 27an, beraz, Diman eta Bakaikun egingen dira herri galdeketa. Data iritsi bitartean hainbat ekimen egingen dituzte Bakaikun, esaterako, maiatzeko ostiraletan elkartean eta Koxko tabernan pintxo-potea izanen da. Abestiaren aurkezpena, kriseiluen gaua eta beste etorriko dira gero.

146
Bakaikuarren sinadura kopuru horrek babesten du galdeketa.


Hasieratik bakaikuar mordoak babestu du herri galdeketa.

 >> **SAKANA**

Jai Buseko arduradun izan nahi?

Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako hiru mankomunitateak kudeatzen dute Jai Busa, festa egunetan gautxoriendako garraiorako autobusa. Haren helburua, besteak beste, auto istripuak ekiditea da. Autobusetan gidariaz aparte arduradun bat joaten da. Lan hori egin nahi duenak hiru mankomunitateetako batekin harremanetan jarri beharko du: Irurtzun 948 600 694, Etxarri Aranz 948 460 752 eta Altsasu 948 467 662. Ezinbesteko baldintzak dira: euskaraz hitz egitea, adinez nagusia eta arduratsua izatea.

 >> **Arakil**


Botanika ibilbiderako deia

Arakilgo Udaleko Kultura Sailak basaloreak ezagutzeko ibilaldia antolatuko du. Maiatzaren 29an, igandean, 10:00etan izanen da. Madozko mendatean jarri dute hitzordua. Han biltzen direnak Felix Rey gidarekin botanika hobe ezagutzeko aukera izanen dute. Izena emateko: udaletxean, 634584226 telefonon, arakilkultura@gmail.com e-postan edo sare sozialen bidez.

 >> **Olatzagutia**


Aurreskua dantzatu zuten hildako eta errepresaliatuen omenez. LARRAITZ AMADOZ LAZKANO

Isildutakoen minak badu lekua Olaztin

Larraitz Amadoz Lazkano

Nafarroan 3000 pertsona baino gehiago hil zituzten 1936ko estatu kolpearen ondoren. Olatzagutian sarraskia nabarmena izan zen, 17 pertsona hil zituzten, Nafarroan eraildako beste guztien kasuan bezala herritarren zerbitzura zegoen estatu baten zilegitasuna defendatzeagatik hil zituzten. Beste bost frontean hil ziren, gutxienez 27 olaztiar espetxeratuak izan ziren eta batzuk lan zelaietan behargin moduan bidali zituzten, 11 emakumeri ilea moztu eta publikoki umiliatu zituzten, bost funtzionariok lanpostua galdu zuten, 10 herritarri ondasunak kendu zizkieten, eta bi errefuxiatu egin ziren.

Francok 1936 urtean emandako estatu kolpearen 80. urteurrena betetzen da aurten. Hamarkada hauetan guztietan sufritutako mina isilarazi zaie frankismoaren biktimei, baina memoria ez dute ahan-tzi olaztiarrek. Egia eta aitortza ozen zabaltzeko zuten lau haizetara larunbatean. Olazti Memoria Taldeak, eta Olatzagutiako Udalak memoria historikoaren inguruko ekitaldia antolatu zuten. Olaztiko Udalak bilkura berezia egin zuten

herriko kultur etxean, bertan, kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresaliatutako aitor-tza eta erreparazio morala aurkeztu zuten mozio bat sinatuz. Biktima guztien izenak irakurri zituzten bilkuran. EH Bildu alderdiko zinegotzi eta alkatea eta PSNko zinegotziak izan ziren mozioaren sinatzaileak. UPN alderdiko zinegotziak ez zuten mozioa sinatu eta ez zen omenaldian egon. Kultur etxea jendez bete zen, olaztiarrek, baita fusilatuen senideak bertan izan ziren.

Bilkura bukatu ondoren, Sute-gi parkean omenaldi berezia egin zuten. Kolpe militarrek utzitako biktima guztiak oroitu zituzten oroigarria jarri zuten parkean, eta senideek lore eskaintza egin zuten. Inoiz gertatu behar ez zena ahaztu ez dadin, hemendik aurrera Sute-gi parkea, Memoria Historikoaren Parkea izendatu zuten.

Olazti Memoria taldea

Olaztiko Memoria taldea joan den urte bukaeran sortu zen. Taldeko kide batzuk Sartagudara joan ziren Olatzagutiako informazio bila, han jakin zuten herrian 17 hildako zituztela. Hasiera batean jendeak ez

zuten hitz egin nahi, eta pixkanaka-pixkanaka informazioa bilduz joan ziren, udalarekin elkarlanean. Taldearen asmo nagusia zer gertatu zen jakitea da, horretarako izen bilketa egin dute, testigantzak jasota, horren ondorioz, zerrenda luzea egin dute. Oraindik ere gauza asko falta direla uste dute, eta jendea parte hartzera animatu dute.

Inflexio puntu bat izan zen omenaldia taldekoendako eta hemendik aurrera lanean jarraitzeko asmoarekin daude. Lekuko gehienak oso jende heldua dira, eta beharrezkoa ikusten dute egiten ari diren lana.

Udalaren mozioa

33/2013 Foru Legean jasotakoari jarraituz, Olatzagutiako Udalak memoria historikora aurreneko hurbilpena egin nahi izan du mozio eta omenaldi honen bidez. "Inoiz gertatu behar ez zena, berriz gerta ez dadin eta inork ahaztu ez dezan" horixe adierazi zuten Udaleko bozeramaileek. Gertatutakoaren ezagutzari heldurrik ez izatea nabarmendu zuten, eta erreparazioari aipamen berezia egin zioten.

kaxeta
 liburudenda / paperdenda
 Zure bertako opari denda
 Fax Zerbitzua
 Koloretako fotokopiak
 Tel.: 948 460 477
 Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

sorgiñak
 taberna

LAKUNTZA
 948 576 357

Olga Martinez de Lagrán
 Psikologian doktorea
 639 408 118
 Min kronikoaren tratamendua:
 fibromialgia, artritis, buruko minak, ansietatea, depresioa

>> Arakil

Asteburuan, erromeriatik erromeriara

Itxasperrin bihar eta Aralarren etzi

Arakildarrak urtero Aralarko santutegira erromeria egiten dute, irurtzundarrekin batera. Aurten erromeria eguna, igandea, San Isidrorekin bat egin du. Horregatik, nekazarien eguneko ospakizunak larunbatera aurreratu dituzte. Egiaurretako Itxasperriko Santiago ermita, atzera ere, arakildarren topalekua bihurtuko da. Ibarreko hildakoen aldeko meza 12:00etan izanen da. Ohi bezala, elizkizuna eta gero ibarreko soro eta larreak bedeinkatuko dituzte. Elkartutako guztiek udalak eskainitako otamena dastatzeko aukera izanen dute.

Etzi, berriz, Irurtzundik Aralarreko autobusa eguerdian abiatuko da. Santutegian 13:15ean izanen da meza eta despeditzean Aralarko aingerua gurtzeko aukera izanen da. Ondoren, 14:15ean, herri bazkaria izanen da. 75 bat arakildar eseriko dira mahaiaren bueltan.



Itxaspeirri, atzera ere, arakildarrak elkartuko ditu.

>> Bakaiku

Santa Marinarako prestatzen

Bakaikuk eta Iturmendik partekatzen duten ospakizuna bertan dago, hilaren 22an izanen da. Urte bikoitia denez Bakaiku arduratuko da festaren prestakuntzaz. Hori dela eta, Bakaikuko Kultura Batzordeak hainbat jakinarazpen egin ditu. Lehenik, batzordeak berak Bakaikuko Gazte Asanbladarekin batera, Dantzalarre dermioa garbitzeko auzolana antolatu du. Bihar, 9:00etan, elkartetik abiatuko dira.

Batzordetik jakinarazi duteenez, Santa Marina egunean ermitatik herrirako bueltan 18:00etan abiatuko dira. Txistulariek alai-



Bakaikuarrak bargako ibilbidea markatu zutenekoa.

tuta jaitsiko dira eta Bargan dagoen Dantzalarre dermioan geldialdia egingen dute bakaikuarrak. Behin herrian, San Joan plazan Dj Jotatxo ariko da dantzarako doinuak jartzen, 19:30etik 23:00etara.

Kultura Batzordetik bestalde, gogorarazi dute Santa Marina bezperan, larunbata 21ean, Aitzkozar krosa jokatu dela. Bakaiku abiapuntu eta helmuga izanen du lasterketak eta, horregatik, hainbat kale moztuko direla gogoratu du. Bide batez, bakaikuarrak parte hartzera edo korrikariak animatzera gonbidatu ditu.

>> Altsasu

Azpiegitura erraldoien kontrako festa

Izen hori duen ospakizuna gaur, ostirala, 21:30etik aurrera Altsasuko gaztetxean ospatuko da

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako Txirrinka bizikleta martxak Sakana zeharkatuko du heldu den larunbatean, hilak 21. Haren bidez ingurumena zaintzearen eta gizarte ereduaren eraldatzeko aldarria zabalduko dute. AHTren eta beste proiektu "txikitzaileen" kontra egiteko mezua zabalduko du txirrindulari tropelak. Bizikleta martxa iritsi aurretik Altsasuko gaztetxeak AHT eta beste azpiegitura erraldoien kontrako festa hartuko du gaur.

Txirrinka

Heldu den larunbatean, 21ean, 14:57an Irurtzunera iritsiko da aldarrikapen bizikleta martxa eta Lizarrustitik barna Gipuzkoarantz joko du.

Egitaraua

21:30ean Herri afaria (entsaladak, barazki kitxea eta arroz esnea).
22:30ean Bakarriketak: Filo - Tajole eta Hurrikane (*Y tu que ves* bakarriketak).
00:00etan Musika antikapitalista eta koktelak (mojittoa, caipiriña...).



Bizikletan AHT eta beste egitasmoen kontra egingen dute heldu den asteburuan.

>> Lizarraga / Etxarri Aranatz

Erauntsiak eta kaxkarra

Astelehen arratsaldean erauntsiak eta kaxkarra izan ziren gurean. Lizarragako kaleak une batez erabat txuritu zuen kaxkarra. Etxarri Aranazko meteorologia estazioan 17:10 eta 18:40 artean ia 26,7 litro ur metro koadroko zenbatu zituen. Denbora gutxian botatako hainbeste ur



Kaxkarrak Lizarragako kaleak txuri utzi zituen astelehenean. UTZITAKOIA

Zurkillo errekek ezin izan zuen bideratu eta gainezka egin zuen

Etxarriko Tellerialde parean Zurkillok.

>> Altsasu

Emozio adimenean trebatzeko

Emozioak hauteman, maneiatu edota ulertzeko adimen emozio ikastaroa antolatu du Gazteria Sailak. Intxostiapunta gazte gunean izanen da ikastaroa, hilaren 21ean eta 28an, 9:00etatik 14:00etara. 19ra arte eman dai-teke izena: gazteria@altsasu.net edo 948 564785 bidez egin behar-ko da.

>> Uharte Arakil

Gurasoak eta sare sozialak

Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen prebentzio programak gurasoei zuzendutako tailerra antolatu du: sare sozialak segurtasunez erabili. Haren bidez neska-mutilen gurasoei Interneten ematen diren arrisku egoera ohikoenak, eta haiek ekiditeko baliabideak jakinarazi nahi zaizkie. Horrekin batera, Internet segurtasunez erabiltzeko jarraibideak jasoko dituzte eta, azkenik, ciberbullying eta grooming fenomenoak zer diren argituko diete.

Tailerra maiatzaren 16an eta 23an, astelehenetan, 18:00etatik 19:30era izanen da. Uharte Arakilgo udaletxean izanen dira saioak. Sare sozialetan aditua den Ion Gonzalezek emanen ditu argibideak. Tailerraren antolakuntzan Uharteko guraso elkarte eta eskolak lagundu dute.

GAZTEENDAKO

14 eta 18 urte bitarteko gazte uhartearre zuzendutako tailerra izanen da hilaren 20an, heldu den ostira-lean: drogak, informazioa eta prebentzioa.

>> Iturmendi

Juleni omenaldia

Julen Galarza Otxoa ilbeltza hasieran hil zen. Zinegotzi eta preso ohia gogoan, iturmendiar talde batek omenaldia antolatu du biharko. Hala ere, egitaraua gaurko hitzaldiarekin abiatuko da.

Egitaraua

>> Maiatzak 13, ostirala

19:00etan Mahai-ingurua: preso gaixoak. Hizlariak Bautista Barandalla eta Gotzon Gogortza.

>> Maiatzak 14, larunbata

10:00etan Aizkozarrera igoera.
14:30ean Bazkaria elkartean.
19:00etan Omenaldia.
20:00etan Auzatea.
20:00etan DJ Barban gaztetxean.

>> Arbizu

Larunbatean, Argi Bidean

Arbizuko Gazte Asanbladak egitaraua prestatu du biharko. Argi Bidea gazte elkarteak hartuko du prestatutako guztiak. Hasteko eta behin, 17:00etan, Gure kabuz ala hil dokumentala ikusi eta haren inguruan eztabaidatzeko aukera izanen da. 18:30ean triki-poteoari ekinen diote. 20:00etan erronda eten egingen dute Borrokarekin gazteok ekin leloa duen kontzentrazioa egingen dute. 21:00etan ogitartekoak afaldu eta gauerditik aurrera dj-festa izanen da: Iñaki Kreator, Aitor Lizarraga, Gordon, Izar Bost eta Lokesea.

SAKANA

Sakanan banda zabala lortzeko bideak aztertzen

Guifi.net fundazioko Roger Baigek euren proiektua aurkeztuko du Sakanan: internet banda zabala modu komunean, librean, zabalean eta neutralean zabaltzeko elkarlaneko ekimena

Asteartean, 17:30ean, Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako egoitzan

Gauza jakina da Sakanako telekomunikazio sareak gabezia nabariak dituela. Makina bateragilek, erakundek eta Sakanako Enpresarien Elkartek tartean, egoera hobetzeko eskaria egin diote Nafarroako Gobernuari, telekomunikazio enpresei eta hainbat erakunderi. Sakanako Garapen Agentziatik aipatu dutenez, Guifi.net fundazioarekin elkarlanean Sakanako herriei kalitatezko Internet zerbitzu bat izatea ahalbidetuko dien ekimena jarri nahi da martxan. Horretarako, aipatu fundazioaren aholkularitza jasoko da.



Komunikazio sarea elkarlanean eraiki nahi ditu guifi.net-ek.

Egoeraren aurrean Sakanako Garapen Agentzia Guifi.net fundazioarekin harremanetan jarri da. Fundazioaren helburua telekomunikazio sare komun, libre, zabala eta neutralaren garapena sustatzea da. Hau da, telekomunikazio banda zabalen garapena sustatu nahi du, beti ere irisgarritasuna eta interes komuna oinarri hartuta. Eta diru etekinik ateratzeko asmorik gabe, fundazioa baita. Guifi.net proiektuaren bitartez, ohiko telekomunikazio enpresak

www.fundacio.guifi.net

Fundazioari buruzko informazioa izateko.

iristen ez diren tokitara banda zabaleko Internet ahermatea lortu da, besteak beste irrati-frekuentzia antenen bidez. Ur sareak aprobetxatzen dituzte bertatik zuntz-optikoa sartzeko ere. Guifi.net-eko kideek diotenez “hauxe da zuntz optikoa landa eremuetara eramateko modurik ekonomikoena”.

Elkarlaneko proiektua da. Lehenik eta behin norbanakoen ahalegina dago, norbanako bakoitzak antena bat jarri beharko duelako sarea jasotzeko. Eta gero administrazioen ahalegina dago, azpiegiturak baimendu eta jarri behar baititu, boluntarioena, informazioa eman eta laguntza ematen baitute, eta elkarlaneko ekonomia hori burutzeko lan egiten duten enpresena ere. Izan ere, aipatzeko da ekimen horrek tokiko garapenari loturiko lanpostuak sortzeko erakutsi duen gaitasuna.

>>

Konposta, baratze eta lore-ontzietarako ongarria, eskura

Baratze eta etxeko lore-ontzietarako egokia den ongarri hori Arbizuko hondakindegian eskuratu daiteke

Sakanako Mankomunitateak kudeatzen duen Arbizuko hondakindegian konpost pila dago. Auzo-konpostagailuen bidez egindako konposta da. Auzo-konpostagailuak erabiltzen dituzten denek ez dute baratzerik edo lore-ontzirik eta, horregatik, banatu ez den konposta Arbizuko hondakindegian dago. Materia organikoa atez atekoaren, auzo-konpostaren edo etxe-

konpostaren bidez kudeatzen dutenak hondakindegitik pasa eta nahi duten konpost guztia eraman dezakete. Horretarako, poltsa, zaku edo gurditxoak eraman beharko dituzte. Astegunetan, 7:00etatik 14:00etara pasa daitezke interesatuak eta hango langileei konpost bila doazela esan beharko diete.

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko Beñat Agirre Bengoetxeak azaldu digunez, “konposta material egokia da, ongarri moduan erabili daiteke



Hondakindegian dagoen konpost pila eta harendako bahea.

baratze eta lore-ontzietan. Lurrari bitamina eta elikagai ekarpena egiteko material oso egokia da”. Erabileraz galdetuta argitu digu baratzetan edo zuhaitzei zuzenean lurrera bota daitekeela, “lurrak berak behar duena pixkanaka-pixkanaka hartuko du”. Loreon-

tzien kasuan “kontuz ibili behar dugu. Konpostak lurra dirudi, baina, benetan, askoz ere indartsuagoa da. Beraz, loreontzietan hiru lur zatiko zati bat konpost nahastu behar da, edo pixka bat gutxiago. Gehiago botaz gero posible da landarea erretzea”. +www.guaixe.eus

>>

Olatzagutia

Maisuenearen XXI. urtemuga ospatzen

Bihar, larunbatean, egun osoko egitaraua antolatu du Olatziko Gazte Asanbladak

Maisuenea gaztetxeak 21 urte bete dituela ospatzeko, bihar urtebetez festa antolatu du Olatziko Gaz-

te Asanbladak. Eguerditik aurrera zertaz gozatu izango dute gaztetxean biltzen diren gazteek eta olatziar guztiek. Jokoak, triki-poteoa, bazkaria eta beste izanen dira.

Egitaraua
12:00etatik 13:00etara Haurrendako jokoak.
13:00etan Txupinazoa. Ondoren triki-poteoa herritik barna.
14:30ean Bazkaria gaztetxean. Menua: entsalada, babarrunak, izozkia, kafea eta kopa (10 euro). Bazkaldu ondoren euskal karaokea (Aritu euskara taldea).

Arratsaldean zehar areto futbol txapelketa gaztetxe aurrean.
19:30ean Triki-poteoa eta aulkien jokoa herriko tabernetan.
23:00etan Euskal musika gaztetxean.
1:00etan Mozkor olinpiadak gaztetxe aurrean.
*Oharra: baserritarrez janzteko gonbidapena egin dute.

>>

Arbizu

Iraultza goxoaren berri

Osasungintzaren aitzatzen duten Hipokratosen printzipioa zabaltzen du Josep Pàmies: zure elikagaia zure botika izan dadila eta zure botika zure elikagaia. Hala “iraultza goxo” sustatzen ari da, sendabelar eta kostu gutxiko landare naturalen oinarrituta dagoena. Astelehenean, Arbizuko Amari yoga aretoan azalpenak eman zituen. 500 pertsona elkartu ziren Pàmiesek emandako bi hitzaldietan, sakandar ugari tartean.



PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Non erabili

ILAIA ILEAPAINDEGIA
ETXARRI ARANATZ
Deskontu bereziak.

T. IRIARTE
IRURTZUN
50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

NUEVA IMAGEN
ALTSASU
%10eko deskontua.

ARRUAZUKO OSTATUA
ARRUAZU
Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE
ALTSASU
Bandalux 59,00€/m² (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA
ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan, 10 €ko deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA
LAKUNTZA
Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA
IRURTZUN
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA
ALTSASU
%5eko deskontua osagarrietan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

>> Etxarri Aranatz

Joxe Aldasoro Etxarriarra laster epaituko dute Madrilen

Larraitz Amadoz Lazkano



Joxe Aldasoro Jauregi. LARRAITZ A. L.

Joxe Aldasoro Etxarriarra 8/2013 sumarioan auzipetua dago beste zortzi euskal herritarrekin batera eta epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionallean maiatzaren 17an, asteartean, hasiko da. Ekineko zuzendaritzako kide izatea leporatzen diete sarekadan atxilotutako guztiei. Aldaketarik ez baldin badago, hiru aste iraunen ditu epaiketak eta auziperatuak izanen dira lehenak deklaratzeko. Auziari dagokionez, Aldasorok adierazi du AVT eta Dignidad y Justicia direla akusazio partikularrak eta azken horrek aurreratu du ez duela inolako aldean arteko akordioarik nahi. Epaiketak hortaz, aurrera egingen du. Guaixe aldizkariak epaiketa hasi aurretik Aldasororekin egoteko aukera izan du.

gertutik >>

Joxe Aldasoro

Auzipetua

Noiz izan zinen atxilotua?

2010eko irailaren 14an, Marlasca epailearen aginduz bederatzi pertsona atxilotuak izan ginen Euskal Herrian. Astearte batean izan zen atxiloteta, eta lege anti-terrorista dela eta ostirala arte inkomunitatuta izan gintuzten. Ostiralean epailearen aurrean deklaratu eta gero, espetxera sartu gintuzten. Erakunde terroristako kide izatea leporatzen ziguten, 22 hilabetez kartzelan egon ginen eta 9.000 €ko fidantza ordaindu eta gero 2012ko garilaren 25ean kalera atera ginen. Duela urte bat inguru prozesatuak izan ginen. Ondoren eskaera fiskala etorri zitzaigun, 8 urteko kartzela zigorra eskatzen dute gutako zortzirentzat, eta Ugaitzendako 12 urteko zigorra.

Bi akusazio gehitu behar zaizkio auzi honi ezta?

Bai, bi akusazio partikular dauzkagu, AVT eta Dignidad y Justicia, eta haien eskaerak altuagoak dira. Hamabi urteko eskaera gutako zortzirendako eta hamabost urteko kartzela zigorra eskatzen dute Ugaitzendako. Hori da laburbilduz, epaiketa honetan eskatzen ditugutena.

Akordiorik egiteko aukera aurreikusten duzue?

Guk dagoeneko badakigu aukera hori ez dugula izanen. Dignidad y Justicia akusazio partikularrak publikoki esan du, ez duela tratuerik nahi, ez duela terroristekin negoziatu nahi. Tonu horretan hitz eginda, epaiketa maiatzaren 17an egingen dela badakigu. Aurreikusitakoaren arabera 17an hasi eta garagarriaren 2an azken saioa izanen dugu, beraz hiru aste iraunen ditu epaiketak.

Aurrera pausoak ematen ari dira instituzioen aldetik?

Bai, aznugal-ekoein batera Nafarroako Parlamentuan gu ere han izan ginen. Agerraldi hartan eskaera batzuk egin genituen, eta esan beharra dugu agerraldi hartan bertan gure eskaerak onartuak izan zirela. Gerora, Nafarroako Parlamentuak adierazpen bat onartu du epaiketa hauen aurka. Sakanan ere Xafan eta Joxe aske ekimenak jaso dituen atxikimenduak azpimarratuko nituzke, alkateak, herritarrek, alderdi politikoak, sindikatuak. Sozialki ikusten dugu Estatuaren ikuspegiak ez duela inolako sinesgarritasunik, baina Estatuak gu Madrilerat bidaltzeko boterea du eta hala egingen du. Momentuz ez dugu indarrik lortu egoera honi buelta emateko.

Espainian epaiketa politikoen gaia mahai gainean jarri dute**alderdi batzuek, zer gogoeta egiten duzu honen inguruan?**

Testuinguru horren inguruan ez dugu hausnarketa zehatzik. Hauteskunde berriek ez dut uste eraginik izanen dutenik epaiketan. Ez onerako ezta txarrerako. Agian ez gara ardatz mediatikoa izanen eta hori guretako onuragarria izanen dela uste dut, baina ez dut uste gobernu berri batek ondorio zuzenak izanen dituenik guregan.

Nolakoa izanen da epaiketa?

Gu izanen gara lehenak deklaratzeko, ondoren perituak eta Guardia Civilaren txanda izanen da. Horren ondoren, gure aldeko perituek hartuko dute lekua guk jasandako torturak frogatzeko. Gero, lekukoaren txanda izanen da eta, azkenean, fiskalaren eskaera, akusazioarena, gure defentsarena, eta gure alegatua.

Duela gutxi tortura salatzeagatik atxilotetak izan dira, ze gogoeta egiten duzu horren inguruan?

Argi dago tortura salatzeagatik auzipetatuak izan diren ekimenek min ematen diela eta ezin dutela hori jasari. Imaginatzen dut jendea belhurtzen saiatzeko egingen dituztela horrelakoak. Torturaren salaketak geroz eta indar handiagoa dauka, geroz eta bide zientifiko eta datu gehiago daukagu esku artean, eta horrela gure bertsioa baieztatu dezakegu.

>> Urdiaín



Alkatea hitzarmena sinatzen.

Udala Ennecoren alde

Urdiaingo alkate David Carmelo Orozek Nafarroa Bizirik fundazioarekin lankidetzat hitzarmena sinatu du berriki. Bi aldeek adostutakoaren arabera, Urdiaingo Udalak legegintzaldi osoan fundazioak sustatzen duen Enneco, haritzaren memoria proiektua laguntzeko konpromisoa hartu du.

SAKANA



Zuzendaritza berriko kideak. UGT

UGTk zuzendaritza berri du

Larunbatz geroztik Jesus Santos da Nafarroako UGTko idazkari nagusi berria, Javier Lekunberriri lekuko hartuta. Sindikatuak 11. Lurralde Batzarra egin zuen eta hartan Santosek %87,65eko babes eskuratu zuen. Santosek "aurrera egiteko borroka sindikalarekin segitzeko" konpromisoa hartu zuen. Eta ziurtatu zuen UGT "langileriak bere interesak defendatzeko duen tresna onena" dela. Santosekin batera zuzendaritzan daude: Amaia Villanueva Fernandez, antolakuntza idazkaria; Marisol Vicente Ioldi, politika sindikaleko idazkaria; Augusto Paredes Anton, administrazio idazkaria eta Borja Paredes Alonso, lurralde idazkaria.

>> Arbizu

Auzipetze jakinarazpena jaso du Baldak

EPPKren bitartekariak, abokatuak, eta Etxerat, Jaiki Hadieta Herrera-kokideak. Guztira 46 euskal herritar auzipetudutze 11/2013 sumarioan, ETArren "espetxe frontea" osatzea leporatuta. Haien artean dago Fran Balda arbizuarra, Herrera-ren kontrako sarekadan atxilotua. Auzipetuek astelehen eta asteartean artean jaso dituzte auzitaratzearen jakinarazpena, Madril. Auzipetuek prozedurarekin ados ez daudela adierazi dute eta abokatuak auzipetzearen kontrako helegitea aurkeztu dute. Amaia Izko abokatuak Espainiako Estatuaren "mendeku" jarrera salatzen du.

>> Etxarri Aranatz

EH Bilduko udal taldeak Aldasorori babesa azaldu dio



EH Bilduko udal taldeko kide guztiak elkartu ziren adierazpena egiteko.

Joxe Aldasoro Jauregi zinegotziaren epaiketa dela eta Etxarri Aranazko EH Bilduren udal taldeak "babes osoa" azaldu dio hautetsiari, "askatasunez jarrai dezan bere jarduerara politikoki, sozial eta instituzional txukuna egiten". Horregatik, Etxarriko EH Bilduko udal taldeak hainbat eskaera egin dituzte: "adierazpen askatasuna eta elkartzeko askatasuna bermatzea, eta inor ez dadila epaitua izan bere ideien inguruko edo aktibitate poli-

tikoagatik". Horrekin batera eskatu du "eskubide zibil eta politikokoak bermatzen dituen marko juridikoa gara dadila, demokrazian eta askatasunean sakontzeko". Eta exijitu du "tortura ahalbideratzen duen inkomunikazioa legez kanpo utz dadila". Azkenik, "asteartean hasikoden epaiketa bertan behar gera dadila eta bertan inputututako kideak libre gera daitezela" eskatu du Etxarriko EH Bilduko udal taldeak.

SAKANA

Alderdiak hauteskundera begira

Gobernua osatzeko negoziazioak emaitzarik gabe despiditu ondoren, hauteskunde orokorrak garagarriaren 26an izanen dira. Alderdi eta koalizioak data horri begira erabakiak hartzen hasi dira. Nafarroako Ahal Duguko zirkulu guztiek, Altsasukoak barne, aurreko astean erabaki zuten herrialdeko gobernua sostengatzen duten gainontzeko alderdiekin ez aurkeztea. Ezker Batuarekin aurkezteko aukera lehenetsi zuten. Estatuko aurreakordioa astelehenean sinatu zuten.

Ezker Batuak ere lau haulta gaitzaren kontra eginga zuen. Nafarroan kide duen Batzarre estatu mailan Podemosek eta Ezker Batuak lortu duten zerrenda babestuko duen kontsulta bidez erabaki du. UPNk eta PPK berriro elkarrekin aurkeztuko dira. Erregionalistek zerrenda buruak hauteskunde primarioen bidez aukeratzeko dituzte igandean. Bes-



Hauteskundeetako eskaintza.

talde, Nafarroako Gobernuari eusten dioten lau indarrak elkarrekin aurkeztearen aldekoak ziren Geroa Bai eta EH Bildu. Proposamena onartu ez denez, koalizio bakoitza zein bere aldetik aurkezteko erabaki du.

SAKANA

Azienda, mendirako bidean

Joan den urtean natur-parkeak 34.214 buru hartu zituen, 17.310 Urbasak eta 16.904 Andiak

Azken astean artzain eta abeltzainak azienda Aralar mendira eta Urbasa-Andia natur parkera igotzen hasi dira. Azken horretako larreak apirilaren 15ean zabaldu ziren aziendarendako eta abenduaren 15a baino lehen atera beharko dute handik. Jakina, igo

Urbasa-Andiara 2015ean igotako azienda kopurua		
Azienda	Buru kopurua	%
Ardi-azienda	26.547	77,59
Latxa	20.877	61,02
Rasa	5.670	16,57
Behi-azienda	4.382	12,81
Zaldi-azienda	3.285	9,6
Asto-azienda	38	0,11
Guztira	34.214	100

ahal izateko azienda osasun baldintza egokiak izan beharko ditu.



Artaldeak Urbasara igo berria, Mendizelein. AROIA BERAATEGI

Altsasu

Kalte-ordainak kobratuta itxi da Gamesako lan gatazka

Nafarroako Lan-arloko 3 zk.ko Epaitegiak onetsitako kalte-ordainaren kobrantza egin ondoren, ELAk jakinarazi duenez, Gamesako gatazka juridiko-sindikala bukatu da. Gatazka 2010ean hasi zen Gamesak Altsasuko lantegia itxi zuenean. Hasiera-hasieratik ELAk adierazi zuen ez zegoela batere arrazoirik —logika, antolamendu, ekonomia edo ekoizpenaren aldetik— lantegia ixteko. Horregatik, alde batetik, plantilla sendo sindikalizatu batean eta, beste aldetik, zerbitzu juridikoe-tan oinarrituz, lantegia irekita mantentzeko eta 130 lanpostuei eusteko estrategia bat prestatu zuten. ELAtik salatu dutenez, enpre-



Gamesako langile ohiek eta ELAko arduradunek epaiaren balorazioa egin zuten

saren, Nafarroako Gobernuaren, Lan Ministerioaren eta UGT nahiz CCOO sindikatuen jarrera “oztopo izan dira Gamesako plantilla-

ren borroka sindikalak bere bidea urratu zezan, eta lantegiaren geroa ziurtatu zezan”. ELAtik gogorarazi dute gamesaren itxiera “frus-

trazio-iturri” izan zela bai langileendako, bai sakandarrendako: “zeren lantegi hori esanguratsua izan da Sakana osoan, eta deslokalizazio hori garai hartan gertatu ziren itxiera-bolada baten azkena izan zen”. Sindikatuak bere zerbitzu juridikoe-k lortutako emaitza onak nabarmendu nahi izan dituzte. Lan horren emaitza da Altsasuko Gamesaren itxiera epaitegiek deusez deklaratu zutela, erabakiaren arduradunen jokaera gaitzetsiz. Enpresak langile kaleratuak berrituz onartu nahi izan ez dituenek, kaleratze bidegabeengatik beste epaiketa batzuei egin behar izan die aurre eta, azkenean, erreklamatu duten langileei zerbitzu-aldiko urte guz-

tiengatik, enpresan sartu ziren lehen egunetik, ordaindu behar izan dizkie kalte-ordainak, Enplegu Erregulazio Espedientea ezertarako kontuan hartugabe, aurtengo apirilaren 27ra arte, egintza judiziala gauzatu den egunera arte. Hala, 2010ean kobratu ziren kopuruak bikoiztu egin dira. ELAtik azpimarratu dute “lanerreformen gainera, eta enpresaren jokabide maltzurra eta guzti, merezi izan duela antolatzeak eta gure eskubideen alde borrokatzeak. Izan ere, afiliazio handiko plantilla bat eta zerbitzu juridikoen ongi egitea uztartzen badira, Gamesa bezalako enpresei horrelako jokabideak ez zaizkie dohai-nik ateratzen”.

Olatzagutia

Lore eta landare eskaintza zabala etzi

Domekan, 10:30etik 14:30era, Olatzagutiako plazan

Bederatzigarren aldiz lore eta landare azoka hartuko du Olatzagutiak. 11 postu izanen dira plazan eta haietan etxeak edertzeko, baratzetan landatzeko eta norberaren ongizaterako produktuak eskuratzeko aukera izanen da. Horrekin batera, plazatik pasatzen direnek Marokoko sukaldaritza ezagutu eta dastatzeko aukera izanen du.

Izan ere, emakume talde batek eurek sukaldean erabiltzen dituzten espezieen eta haien ezaugarrien berri emanen dute. Te dastatzea ere eskainiko dute Sarasate plazan. Gainera, nahi duenak, gorputz atalen bat hennaz tatutzeko aukera izanen du. Bestalde, txikiek landareak aldatzeko tailerra izanen da, plazan. Bi jarduerak horiek 11:00etatik 13:30era izanen dira.

Parte hartzaileak			
Zein	Enpresa	Herria	Zer
Jose Maria Setien	Invernaderos Segura	Segura	Baratzte landareak, loreak, lore-ontziak.
Maiaka Eras	Taller Alivia	Arbeiza	Aromaterapia, yoga kuxinak, zaku termikoak.
Juan David Pollacino	Cactus Islaya	Erresteria	Kaktusak eta landare gizenak
Xandra Ruiz	Tienduka	Arizkuren	Natur-kosmetika, erlezaintza, sendabelarrak.
Aritz Urretabizkaia	Urretabizkaia lore-denda	Arama	Urte-sasoiko landareak, zuhaixkak.
Ines Flores	Arte y Bienestar	Lasarte-Oria	Hazi karamelatuak. Loreak.
Ioseba Segurola	Urtinea	Usurbil	Lore eta landareak.
Juan Carlos Esain	Viveros El Montañes	Tafalla	Garaiko landareak eta lorezaintza.
Gustavo Pollacino	Viveros Landarbaso	Erresteria	Garaiko landareak, zuhaixkak, barruko landareak.
Imanol Aranburu	Viveros Aranburu	Aginaga	Zuhaixka apaingarriak eta garaiko landareak.
Juan Carlos Olarte	Gure Lurra	Gasteiz	Sendabelarrak.



Okindegia-gozotegia

ARAIA

945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua

Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185

- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI ARANATZ

948 461 660



GRUPO TANATORIO

IRACHE


TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Martin Senar Andueza



Zurekin ditugun oroimenak gure bizitzako poza eta indarra dira.

Etxekoak
Lizarraga Ergoiena



Garbiñe Sasiain Urrizalki

Heriotzaren aurrean irribarrea galdu ez duenari

Altsasu BHI Hezkuntza komunitateak familiaren doluarekin bat egiten du




Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin



948 564 275
Foru plaza, 23-1
Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

Martin Senar Andueza



Errotan, baratzean edo egurretan, baina beti irrifartsu.
Horrela gogoratuko zaitugu beti

Lizarragako alaben lagunak
Lizarragan, 2016ko maiatzaren 12an

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 EKIDETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negozioak

LAN ESKARIA

Sukaldaritza-laguntzailea lana bilatzen ari da, eskarmentua du. Zuriñe 600 27 73 03.

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri elkarteak alokagai. San Adringo festetan. Enkantea ekainaren 5ean goizeko 12:00etan Azi Iturri elkartearen. Gutxienez 600 €. Festak ekainaren 18an, 19an eta 20an.

Opatutakoak / Galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatuta ditu Nafarroan. Informazio gehiago: www.ueu.eus

Oharra

Iratiko ohianera literatur-bisita. Maiatzaren 29an Ibon Martin idazlearen eskutik “La fábrica de sombras” liburuak kokalekuak ezagutzeko aukera izanen da. Izen-ematea Altsasuko Arkatz liburudendan.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresuma-koa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Cava festa Lakuntzan maiatzaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Lagundu nahi duenak kultura@lakuntza.eus helbidera idatzi dezala.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behe, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua

garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonek.com/laguntza euskonek@euskonek.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiagorako sartu hurrengo web guneetan: [\[naarreguilagunak.blogspot.com\]\(http://naarreguilagunak.blogspot.com\) eta \[amigosjosefi-naarreguilagunak@gmail.com\]\(mailto:amigosjosefi-naarreguilagunak@gmail.com\)

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean \[www.guaixe.eus\]\(http://www.guaixe.eus\).

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritako edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan \(Mankomunitatearen parean\) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina...](http://amigosjosefi-</p></div><div data-bbox=)

JAIOTZAK

- Izar Goikoetxea Jaka,** maiatzaren 5ean Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

- Encarnación Calvo Jimenez,** maniataren 5ean Altsasun.
- Tomas Marin Galarza** unanuarra, maiatzaren 5ean Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalet; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eramane: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

PILOTA

ONGAY ELKARPELOTAKO FINALERA: As-teburuan Agoizko Elkarpelota Txapelketa-ko finalerdiak jokatu ziren. Alberto On-

gayk 22 eta 17 irabazi zion Zugarraldeko Azanzari eta finala jokatu du. Markina, Imaz eta Olaetxea bidean geratu ziren.

kirola >>

Pilota

XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa: 3. jardunaldia jokoan

2. jardunaldiko emaitzak

Ostiralean
3.maila:
Alegria-Imaz **18** / Azparren-Agirre **14**
2.maila:
Gorriti-Irañeta **10** / Elorza-Urbizu **18**
Nagusia:
Jamar-Larraia **22** / Kandela-Nafarrete **11**
Larunbatean
3.maila:
Urtzi-Grados **18** / Ruiz de Egin-Galartza **14**
2.maila:
Barban-Xestero **17** / Tuero-Goñi **18**

3. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan
3.maila: Arratibel-Uitzi / Razkin-Maiza
2.maila: Jabi-Pablo / Iñaki-Joanes
Nagusia: Azketa-Atxa / Media-villa-Altuzarra
1.maila: Urteaga-Lauzirika / Ansotegi-Murgiondo

Larunbatean, 17:00etan
3.maila: Ieregi-Murgiondo / Mikel-Imanol
2.maila: Olmos-Lopez / Etxeberria-Sarazibar
1.maila: Sueskun-Nogeira / Zelaia-Grados



Arbizu Larraun baino finago

Herrien Arteko Pilota Txapelketan Arbizuk Larraun izan zuen aurkari.

Emaitzak:

Kimuak: Goldarazena-Garaño (Larraun) **9** - Lakuntza-Flores (Arbizu) **18**
Haurrak: Iriarte-Saralaegi (Larraun) **3** / Lima-Ganboa (Arbizu) **18**
Jubenilak: Aldaregia-Gurrea (Larraun) **22** / Arruti-Agirre (Arbizu) **7**



XXIV. IRURTZUNGO TXAPELKETA Final laurdenetan

Senior mailakofinal laurdenetan,puntakopilotariak lehiatuko dira bihar.

Final laurdenak

Larunbatean, 11:00etan
Seniorrak:
Ongay-Tabar / Kortabarria-Marin
Armendariz-Sarasa / Yoldi-Gorriti

Aurreko asteko final laurdenetako emaitzak:

22 urtez azpian:
Chiapuso-Beloki **22** / Zamora-Arbizu **12**
Seniorrak:
Ojel-Altuna **22** / Iribarren-Perez **14**
Labaka-Mariekurrena **19** / Arrieta-Arratibel **22**

Pilota

Aitor Zubieta: “Partida batzuk behar ditut maila hartzeko, baina oso pozik nago berriz ere jokatzten ari naizelako”

Ilbeltzaren hasierako bi ebakuntzetatik sendatuta, Zubietak Pablo Berasaluzerekin osatu zuen bikoa eta nahiz eta Artolaren eta Rezustaren kontra gutxiatik galdu, itxura ona eman zuen etxarriarrak

Urte hasieratik kantxetatik kanpo egon da Aitor Zubieta pilotaria. Urte bukaeran, Irribarriarekin batera Binakakoa jokatzten ari zela, txapelketa utzi behar izan zuen etxarriarrak. Ilbeltzaren 5ean ebakuntza bikoitza egin zioten. Batetik, eskuin belauneko meniskoaren haustura osatzeko ebakuntza egin zioten, eta, bestetik, ezker hankako Aquiles-en tendoiko lesio kronikoa osatzeko ebakuntza. Bere enpresak, Aspek, orduan azaldu zuenez, etxarriarrak gutxienez 6-9 hilabeteko epea beharko zuen kantxetara bueltatzeko. Baina epea laburtu da, Zubieta igandean, maiatzaren 8an itzuli baitzen frontoira.

Txukun

Bergaran jokatu zuen etxarriarrak, Pablo Berasaluzerekin bikotea osatuta, Artolaren eta Rezustaren kontra. Nahiz eta galdu, irudi ona eman zuen Zubietak eta arazorik gabe despeditu zuen partida. Osolehia borrokatua izan zen, xehetasun txikiek erabaki zutena eta edozein aldeetara erori ahal zena.

gertutik >>

Aitor Zubieta

Pilotaria

Zer moduz zaude Aitor?

Berriz ere kantxetan, zuriz jantzita... pozik. Badakit oraindik asko falta zaidala lehengo mailara iristeko, partida batzuk beharko ditut gorputza ohitu, erritmora jarri eta maila hartzeko, baina oso kontentu nago berriz ere jokatzten ari naizelako. Pilotari sentitzea oso garrantzitsua da, eta bakoitza bere ogibidean dago gustukoan.

Ebakuntza bana hanka bakoitzean. A ze panorama!

Lehen egunetan nahiko zaila izan zen. Osatzeko 6-9 hilabete beharko nituela aipatu zidaten, baina lehen egunetik lanean hasi nintzen eta medikuek segituan esan zidaten azkar zihoala gauza. Aurrerik izan ditudan ebakuntzetan ere horrela gertatu izan zait. Lau hilabete egin berritan atera naiz kantxara eta ongi nago.

Errehabilitazioa gogorra izan da?

Errehabilitazio asko daramatzat. Badakit nola diren eta hau ere oso



gogorra izan da. Lan asko egin beharra dago. Elastizitatea, mugi-kortasuna, ibiltzen ikasi behar duzu... gogorra egiten da, ordu asko dira eta isilpeko lan asko. Baina buruan beti izan behar duzu helburua, kantxetara itzultzea. Horrek ematen dizu indarra. Berez nahiko pertsona positiboa naiz, alaia, eta horrek ere laguntzen du. Etxekoan laguntzaz, beraiek ere asko agoantatzen baitute, aurrera egiten duzu.

Zer moduz igandeko partida?

Entrenamenduetan hobe sentitu nintzen. Partidetan, badakizu, pilota biziagoak izaten dira, erritmoa altuagoa, tentsio puntu hori... Lehen zatian ez nintzen ho-

rren eroso sentitu, jartzea kostatu zitzaidan. Baina bigarren zatian, gorputzaren nagia hautsita edo... hobeto. Enpresak partida zaila jarri zidan lehena izateko, goi mailakoa. Dena den, ia-ia irabaztekoan izan ginen. Pablok lan polita egin zuen eta nik, nahiz eta zein mugak ditudan jakin, kontentu bukatu nuen.

Hemendik aurrera zer?

Hurrengo lauzpabost partidetan espero dut konfiantza hori hartzea eta eman behar dudana maila hori berreskuratzea. Oso argi dut non ditudan gabeziak eta horiek hobetu beharra daukat. San Fermin Torneorako tope-topera egon nahi dut, enpresaren esanetara.

Pala

Aristorena eta Ruiz Espainiako txapeldunak

Oberena A taldekoak Espainiako Emakumezkoen Paleta Gomako txapeldun absolutuak dira

Larunbatean Guadalajaran jokatu ziren Espainiako Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketako finalak. Oberena A taldeko Yanira Aristorena etxarriarrak eta Maite Ruiz de Larramendik Eldense taldeko Garcia eta Simon izan zituzten are-

rio. Aristorena eta Ruiz de Larramendi gailendu ziren, 15-12, 11-15 eta 10-3. Hortaz, Espainiako txapeldun absolutuak ditugu Yanira Aristorena eta Maite Ruiz de Larramendi. Aipatzekoa da txapelketan barna Izar Parot etxarriarrak ere Oberena A taldean jokatu duela eta horregatik berak ere saria jaso zuen finalaren egunean.



Finalista guztiak. Tartean daude Aristorena, Ruiz eta Parot. @FEPELOTA.

Pilota



Txapelketako finalistak eta antolatzaileak, talde argazkian. UTZITAKOIA

Txapeldun handiak Altsasun

II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak:

3. maila: Larrion-Santamaria **14** / Araña-Lazkoz **18**
2. maila: Ansa-Urrizola **10** / Vazquez-Igoa **18**
1. maila: Zelaia-Grados **7** / Gartzandia-Lopez de Zubiria **18**

II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako txapeldunak ditugu Araña-Lazkoz, Vazquez-Igoa eta Gartzandia-Lopez de Zubiria

Altsasuko Alde Zaharretako jaietan murgilduta zeudela jokatu ziren, larunbatean, Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku Klubak antolatutako II. Bikoteka-

ko Pilota Goxua Txapelketako finalak. Burunda pilotalekuan giro bikaina zegoela, txaranga eta guzti, munduko animu guztiak jaso zituzten finalistek. Azkenean, hirugarren mailan Araña-Lazkoz, bigarren mailan Vazquez-Igoa eta lehen mailan Gartzandia-Lopez de Zubiria izan ziren txapeldunak. Bukaeran, sari bana-keta izan zen eta Altsasuko festetan murgilduz jarraitu zituzten ospakizunak. Aipatzekoa da txapelketan emakume bikote batek parte hartu zuela.

Areto futbola



Aurreko urtean ere Magnak El Pozo Murcia izan zuen aurkari play-offetan.

Berdeak... goazen!

Magna Gurpea Xotak Play-Offetako final laurdeneko joaneko partida jokatu du El Pozo Murciaen kontra, gaur, 20:30ean Anaitasunan Lehen mailako areto futbol txapelketako liga erregularrean 48 punturekin seigarrenak sailkatu eta gero, ligako titulua erabakitzeke Play-Offetan sailkatu zen Magna Gurpea Xota, lehen 8 postuetan sailkatutakoek jokatzen baitituzte Play-Offak.

Asteburu honetan hasiko dira Play-Offak, final laurdenekin. Imanol Arregiren mutilei arerio gogorra tokatu zaie: El Pozo Murcia. Joaneko partida gaur jokatu dute, Iruñeko Anaitasuna pabilioian, 20:30ean. Zalantzarik gabe, partida oso konplikatua du talde berdeak. El Pozo Murcia hirugarrena sailkatu zen liga erregularrean eta Errege Kopa irabaztetik dator. Talde ahaltsua da, ligako oilarretako bat, izarrez beteta: Miguelin, Alex, Jé, Raul Campos, Lima... Jakina da Magna Gurpea Xota talde apala dela, aurrekontu

askoz ere murriztagoa duena. Baina Imanol Arregiren mutilek talde bikaina osatzen dute, adorea dute, izaera berezia, eta talde handien aurrean ez dira kikiltzen. Dena den, hori guztia eta gehiago beharko dute El Pozo Murciaen kontra. Kantxa faktorea erabakigarria izango da eta polita litzateke etxean jokatzen duten joaneko partidaren abantaila hartzea, Murtzian jokatu dute itzulerako partidarako abantaila hartzeko.

Jesulitok ezingo du lehia erabakigarri honetan aritu. Lesionatuta dago, hurrengo denboraldira arte. Yoshikawaren parte hartzea ere azken unera arte zalantzan dago. Gainontzeko jokalaririk guztiak lehia garrantzitsurako Imanol Arregiren esanetara daude.

Sarrerak txarteldegian daude eskuragarri. Xotak partidaren eguna klubaren laguntzerako eguna izendatu du, eta, hortaz, bazkideek ere sarreragatik ordaindu beharko dute.

Txirrindularitza

Etxeberria hirugarrena eta Lasa laugarrena Lizarran

Igandean kadeteek V. Lizarra Txirrindularitza Kluba Saria izan zuten jokoan. Toyota Armentia taldeko Joseba Lopez bakarrik iritsi zen helmugara (1:10:19). 1:08ra sartu zen faboritoen tropela. 3.a Intersport Irabiako Josu Etxeberria izan zen eta 4.a Quesos Albenizeko Ailetz Lasa. Marcos Pison (Q.A.) 23.a sartu zen, Urko Gorriti (I.I.) 48.a, Imanol Galarza (I.I.) 52.a, Beñat Etxezarreta (I.I.) 58.a, Iosu Jaka (Q.A.) 59.a eta Javier Mitxaus (I.I.) 65.a. Josu Etxebe-

rriak mendiko sailkapena irabazi zuen eta Ailetz Lasak tartekako helmugena. Eskoletako neska-mutilak Mutiloan lehiatu ziren.

Riaño bosgarrena Lazkaon

Juniorren XL. Lazkaomendi proban Victor Alvaro Construcciones taldeko Xabier Mikel Azparren gailendu zen (2:00:48). Quesos Albenizeko Juan Riaño 5.a sailkatu zen (2:01:54). Asier Etxeberria 10.a iritsi zen helmugara, Alex Unzilla 33.a, Xabier Maiza 42.a, Hodei Zia 44.a eta Oihan Vinagre 55.a. Taldekako sailkapenean bigarrena izan zen Quesos Albeniz.

Bidasoako azken etapa Irisarrendako

Bidasoako Itzuliko azken etapa Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Jon Irisarri irabazi zuen. Irisarri 4.a izan zen Bidasoako Itzulian. Eta Urrakiko igorera Rural Kutxako Josu Zabala bigarrena sailkatu zen.



Irristaketa

Anne Lapuentek brontzezkoa ekarri du

Espainiako Pistako Irristaketa Txapelketako 300 metro sprintean hirugarrena izan zen Sakana Irristaketa Taldeko ziordiarra

Asteburuan Espainiako Pistako Irristaketa Txapelketa jokatu zen Valentzian. Sakana Irristaketa Taldeko Anne Lapuente Perezek hirugarrena izan zen 300 metro esprintean eta brontzezko metala kolporatu zuen. 1500 metroko finalerako ere sailkatu zen ziordiarra, baina eguraldi txarrazela eta, probak bertan behera gelditu ziren. Espainiako Txapelketan parte hartu zuten



gainontzeko sakandarrek ere sailkapen ona lortu zuten.

Atletismoa

Aitzkozar, Andra Mariko Binakakoa eta Ziordiko krosa ate joka

XII. Aitzkozar herri lasterketa eta Andra Mari ikastolaren III. Binakako lasterketa maiatzaren 21ean jokatu dira eta III. Ziordiko herri krosa maiatzaren 28an

Aitzkozar eta Bakarrekoetxea elkartearen artean antolatzen duten Aitzkozar herri lasterketa maiatzaren 21ean jokatu da, Bakaikun. 17:00etan kategoriatxikikoen lasterketak jokatu dira Bakaikun eta 18:30ean proba nagusia (8,1 km). Egun berean, Etxarri Aranatzen, Andra Mari Ikastolaren III. Binakako lasterketa-Naparpellet saria jokatu da, 16:30ean hasita. Bestalde, maiatzaren 28an jokatu da III. Ziordiko Herri Krosa. Kategoriatxikiko lasterketak 17:00etan hasiko dira, eta proba nagusia 17:30ean (6,9 km).



Izena emateak zabalik

Aitzkozar eta Ziordiko herri lasterketarako izena ematea www.dantzalekusakana.com web orrian egin daiteke. Andra Mari Ikastolaren III. Binakako lasterketarako, ikastolako idazkaritzan eman daiteke izena, maiatzaren 19a baino lehen.



Sakandarrak Iruñeko Hiria Maratoi Erdian

Maratoi Erdian Xaxi Estarriaga izan zen lehen sakandarra eta proba herrikoian Juan Luis Maiza eta Izaskun Beunza

Igandean jokatu dute Iruñeko Hiria Maratoi Erdian (21 km) eta lasterketa herrikoian (10 km), bi probak batuta 1.140 korrikalarik hartu zituzten Iruñeko kaleak.

Migel Aristu (1:11:24) eta Alejandra Arribas (1:24:20) izan ziren maratoierdikogaraileak. 642 korrikalari klasifikatu ziren, eta sakandarren artean Xaxi Estarriaga etxarriarra izan zen azkarrena, 155. postuan sartu eta gero (1:33:07). Bestalde, lasterketa herrikoian Aitor Etxeberria (33:48) eta Ana Llorens (37:44) nagusitu ziren. 512 korrikalari klasifikatu ziren eta sakandarren kasuan, Juan Luis Maiza etxarriarra 15.a (37:04) eta Izaskun Beunza 70.a (41:05) iritsi ziren lehenak helmugara.



Sakandarrak Maratoi Erdian (21 km)		
Gizonezkoak:		
1.	Migel Aristu (Iruñea)	1:11:24
155.	Xaxi Estarriaga (Etx.)	1:33:07
217.	Jose Javier Beregaña (Uhar)	1:36:55
459.	Angel Tajuelo (Alts.)	1:50:36
501.	Juan Antonio Palacios (Alts.)	1:54:05

Emakumezkoak:	
52.	Alejandra Arribas (Iruñea) 1:24:20

Sakandarrak proba herrikoian (10 km)		
Gizonezkoak:		
1.	Aitor Etxeberria (Iruñea)	33:48
15.	Juan Luis Maiza (Etx.)	37:04
21.	Iraitz Senar (Lak.)	37:24
67.	Jorge Iradi (Alts.)	40:49
77.	Asier Estarriaga (Etx.)	41:46
128.	Juan Pedro Ariz (Bak.)	45:07
142.	Javier Navarrete (Alts.)	45:49
156.	Borja Gonzalez (Alts.)	46:25
158.	Fernando Montero (Alts.)	46:25
224.	Oscar Hernandez (Irur.)	49:16
296.	Francisco Mata (Irur.)	52:00
306.	Joxe Mari Mercero (Unanu)	52:32

Emakumezkoak:	
24.	Ana Llorens (Burlata) 37:44
70.	Izaskun Beunza (Olaz.) 41:05
216.	Noelia Rodriguez (Irur.) 48:59
341.	Eva Duran (Alts.) 54:00
403.	Maite Duran (Alts.) 56:29

Botxa



7 bikote lehian Iratxoko Botxa Txapelketan

Asteburuan hasiko da txapelketa eta ekainaren 12an despidituko da

Iratxo elkarteak antolatuta, asteburuan hasiko da 2016ko Iratxo Botxa Txapelketa. 7 taldek eman dute izena. Botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzunen jarraitzaile asko dituen. Iratxo elkartearen jokatzen dute botxara, bertan duten botxategi ederrean. Ekainaren 12a bitartean, astero botxaz goatzeko aukera izanen da bertan. Kirol berezi hau ezagutzeko aitzakia bikaina.

Asteburuko partidak

Larunbatean:

19:30ean: Desesperados / Guillermo-Francisco-Iñaki

20:30ean: Xabier-Migel-Txutxurri / Lirainak

Igandean:

19:30ean: Iñigo-Xabier-Jabier / AHTrik Ez

20:30ean: Tximeleta / Desesperados

Mendia

Etxarri-Larraun, Sakanako Mendizaleekin

Ataungo sagardotegi batean bazkaria antolatu dute

Iganderako mendi ibilaldia du antolatuta Sakanako Mendizaleak taldeak. Etxarritik goizeko 8:00etan aterata, Ataunera joko dute, Larrañeta klubak antolatutako mendi ibilaldi ederra eginez. Behin Ataunen, sagardotegi batean bazkaltzera geldituko dira mendizaleak. Ibilaldian izena emateko ohiko tokietan eman behar da izena edo 639 117 631 telefonora hots egin.

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketak

Igandean Sakanako Futbol 8 Topaketetako 17. jardunaldia dago jokoa Altsasuko Dantzalekun.

17. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun

11:00etan: Dantzaleku - Mediolanum

11:00etan: Sayas - Kaixo

12:00etan: Urdiain - Tipi Tapa

12:00etan: Sutegi - Lagun Artea

Atsedean: Etxarri Aranatz

Triatloia / Duatloia

Sakana Triatloi Taldekoak ongi Bermeon

Larunbatean X. Bermeoko Campos Triatloia-Rafa Memoriala jokatu zen (0,750 m igerian, 24 km bizikletan eta 5 km korrikan). 300 triatleta baino gehiagok osatu zuten proba eta 23 urtez azpiko Ander Okamikak (1:10:50) eta triatloira itzuli den Virginia Berasategik

(1:18:32) irabazi zuten. Sakana Triatloi Taldekoek lan polita egin zuten. Javier Borrega 48.a sailkatu zen (1:21:40), Sergio Garcia de Eulate 53.a (1:22:22), Aitor Mozo 64.a (1:23:47) eta Alejandro Zabala 74.a (1:24:42).

Senperen zazpigarrenak
Berriki Senperen jokaturako Triathlon Côte Basquen, Sakana Triatloi Taldea taldekako proban lehiatu zen. Isidro Asurabarrenak, Alex Zabalak eta Sergio Garcia de Eulate osatu zuten taldea. 100 taldeen artean. Girondins Bordeaux izan zen lehena (54:56) eta Sakana Triatloi Taldea zazpigarrena (1:02:21), 7:25era.



Espainiako Taldekako Duatloi Txapelketan



Apirilaren 23an eta 24an Espainiako Taldekako Duatloi Erlojupeko Txapelketa jokatu zen Sorian. Sakana Triatloi Taldeko bi talde lehiatu ziren bertan. Gizonezkoen elite mailan, 99 talde parte-hartzaileen artean Diablillos de Rivas Triatloi Kluba izan zen txapelduna (1:10:32). Sakana Triatloi Taldea A 31.a sailkatu zen (1:17:16). Eta Open mailan lehiatutako 81 talderen artean Diablillos de Rivas Triatloi Klubeko B taldea gailendu zen (1:14:34). Sakana Triatloi B taldea 26.a iritsi zen helmugara (1:25:17).

Gaztetxoak XI. San Juan Duatloian
Maiatzaren lehenean jokatu zen XI. San Juan Duatloia, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Sakana Triatloi Taldeko kideak aritu ziren bertan. Aurrebenjaminetan Asier Razkin 7.a sailkatu zen eta Eneko Razkin 13.a. Benjaminetan Ekain Imazek irabazi zuen eta Alain Razkin 6.a sailkatu zen. Bukatzeko, emakumezkoen kimuen mailan Nahia Imaz hirugarrena iritsi zen helmugara eta gizonezkoetan Hegoi Lakuntza ere hirugarren postuan sartu zen.

Futbola

Osasunako Unai Garcia eta Nauzet Atakondoan



Bisitaren aitzakian, festa ederra ospatu zuten Atakondoan. OSASUNA

Osasuna klubaren Gela Gorritxo-Aula Rojilla ekimenaren barruan, Osasunako Unai Garcia eta Nauzet jokalaria Irurtzungo Atakondoa ikastetxean izan ziren bisitan aurreko ostegunean, ikasle guztien zoramenerako.

Jokalariek hitzaldia eman zuten beteta zegoen aretoan. Ikasleen galderak erantzun zituzten eta euren esperientziaren berri eman zuten. Ekitaldira Osasunako jokari ohi Txomin Nagore irurtzungarra ere hurbildu zen.

Kiroldegia

Proiektzioa, herri kirolak eta afaria Irurtzungo Kirol Ekitaldiak agurtzeko



Mahai-inguruan Irurtzungo kirola izan zuten hizpide. SOKORRO ALZUETA

Irurtzungo Kirol Batzordeak eta kirol taldeek antolatutako Irurtzungo Kirol Ekitaldiak bihar des-pedituko dira. Herrian lantzen diren kirolak, euren osasuna eta arazoak eta Irurtzun eta bere ingurunea ongi ezagutzeko parada eman dute ekitaldi horiek. Aurreko ostiralean mahai-inguru bikaina antolatu zen, eta Tamara Angulo (indoor zikloa), Fermin

Escudero (pilota), Imanol Arregi (areto futbola), Mikel Lasarte (herri kirolak) eta Luis Martil (karatea) irurtzungarrek euren esperientziaren berri eman zuten Mikel Goldarazenaren gidaritzapean. Atzo, ostegunean, kirola eta osasunari buruzko hitzaldia eskaini zuen Oreka fisioterapia eta osteopatiako Eduard Casanovasek. Bukatzeko, asteburu honetan

Mendi lasterketak

Katarain bigarrena Izazpiko igoeran

Asteburuan makinabatmendilasterketa jokatu dira. Tartean, Ezkio-Itza-sokoa. Herriko seme Aritz Egeak (33:23) irabazi zuen. Maiza Araian ibili zen. Bestalde, igandean Mitxarro Bira jokatu zen Araian (27,6 km). Euriak, baina bereziki haize gogorrak, izugarri zaildu zuten lasterketa, eta antolakuntzak ibilbidean aldaketa egin behar izan zuen, segurtasunagatik. Barrundiako Julen Martinez de Estibarizek (2:24:10) eta Miren Jaione Mendijurrek (3:13:41) irabazi zuten proba. Hainbat sakandar lehiatu ziren eta Joxeja Maiza etxarriarra izan zen azkarrena, 7.a (2:37:03). Bestalde, 95 korrikalarik osatu zuten Segura-Zerain Traila (24 km). Jokin Lizeagak (1:58:11) eta Eva Moredak (2:25:36) gidatutako proban Israel Arbizu etxarriarra 36.a sailkatu zen (2:36:20).



Maiza Araian ibili zen.

Automobilismoa

Javi Goikoetxea txapeldun Ausejon



Asteburuan jokatu da VIII. Villa de Ausejo Tramo de Tierra Rallya. Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea kopilotu olaz-

tiarrak (Ford Fiesta R5) izan ziren garaileak (1:28:10). 26 ibilgailuk lortu zuten rallya despidetzea eta 12 erretiratu egin behar izan ziren.

Kiroldegia

Bizikleta festa aurten Irurtzunera

Maiatzaren 29an izanen da, Irurtzunen, baina maiatzaren 24a baino lehen eman behar da izena

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Immigrazio Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak aurreko urtean bizikleta festa antolatu zuten Altsasun, eta arrakasta ikusita, ekimenarekin jarraituko dute. Baina aurten festa Irurtzunen ospatuko da, maiatzaren 29an.

Ibilbidea, jolasak, tailerra eta kirol material trukaketa

Maiatzaren 29an, goizeko 9:30ean 2 orduko bizikleta ibilbide erraza prestatu da Irurtzundik barna. Ondoren auzatea eta herri jolasak izanen dira, eta bizikleta konpontzeko tailerra. Jostailuen eta kirol materialaren trukea egiteko aukera ere egonen da. Edozein kirol materiala trukatu daiteke: patinak,



2015ean Altsasun ospatu zen.

raketak, bizikletak, patineteak, baloiak, eskiak... Hori bai, material hau Atakondoa eta San Migel ikastetxean jasoko da aurretik.

Izena emateko

Maiatzaren 24a baino lehen, Mankeko Kirol Zerbitzuan (948 464 866), Immigrazio Zerbitzuan (648 070 710), Euskara Zerbitzuan (948 464 840) edo Atakondoa eta San Migel ikastetxean.

kultura >>

Mariñelarenaren lanen erakusketa ibiltaria etzi mustuko da



Maiatzaren 15ean, igandean, 11:00etatik 15:00etara eta 16:30etik 20:00etara Etxarri Aranazko estaloan. Gaur eta igande goizean zehar jarduera osagarriak izanen dira

Guk ibilitakoak gureak dira. Izenburu hori jarri dio Sarek Pello Mariñelarena Imazen lanen erre-

produkzioarekin antolatutako erakusketari. HIESak jota, espetxean "inolako mediku-arretarik gabe eta baldintza penagarritan hiltzen utzi" zutela gogorarazi nahi du Sarekerakusketaren bidez. "Pelloren giza eskubideak azken muturreraino nola bortxatu zituzten nabarmentzen du erakusketak,

Liburua

Mariñelarenaren testuak eta margolanak biltzen dituen liburu Amnistiaren Aldeko Batzordeak argitaratu zuen 1993an. Interneten kontsultatu daiteke, Ataramiñe elkarteak sareratu baitzuen 2014an.

baina, batez ere, gaur egun, Pello bezala, gaixo dauden euskal preso politikoen askatasuna" aldarrikatzeko bitartekoa izan nahi du etziko erakusketak. Aldi berean, bere lanaren aitortza ere izan nahi du.

Mariñelarenari ihesean bizi zela, pinturarekiko eta poesiarekiko zaletasuna piztu zitzaion. Espetxean margotzen eta idazten segitu zuen. Ehun koadro baino gehiago egin zituen. Olinoa, ikatza eta arkatza erabili zituen bere lan

Egitaraua

>> Maiatzak 13, ostirala

22:00etan Burdin hariak eta plastikozko koilareak (maitasun lubrikatua), Leku Ona tabernan.

>> Maiatzak 15, igandea

11:00etatik 20:00etara Pelloren lanen erakusketa.

Goizean Uribe Crew graffitariek Pelloren obran oinarrituta horma-irudi bat egingen dute.

12:00etan Serigrafia tailerra. Etxarriko Artie Kaliak Pelloren obran oinarritutako poltsak eta kamixetak egingen ditu. Altsasuko Arte Bide taldearekin sormen parte-hartzailea.

13:00etan Poema-poteoa. Pelloren olerkietan oinarriturik erreizitaldi laburrak tabernetan, idazle, bertsolari eta musikarien laguntzarekin.

Solasaldi berezia

Erakusketaren atariko, Sarek Oier Gonzalezen eta Markel Ormazabalaren ikuskizuna antolatatu du. Biek idatzitako testuak erreizitatuz, gitarrarekin musikatuz eta hiru bideo proiektzioz osatutako ikuskizuna da *Burdin hariak eta plastikozko koilareak (maitasun lubrikatua)*. Espetxearen gaineko solasaldi musikatuz eta gogoeta partekatu hori galdera batetik sortu da: berdin pisatzen ote du koilara batek espetxearen hormaren bi aldeetan? Galdera horri tiraka erakiki dute saioa. Eta koilarari begira, espetxearen gaineko begirada bat eraikitzen dute.

figuratiboak sortzeko. Paisaiekin eta bodegoiekin batera, erretratuak ere badira bere bilduman. Lan horien erreprodukzioarekin osatu da erakusketa. Haiek dohaintzan eskuratzeko aukera izanen da.

Erakusketa, gero Euskal Herrian barna izanen da ikusgai.

Komediazko ezkontza

Txingurriye taldeak ekoiztutako *Goraezkonberriak!* antzezlanaren arrakastatsua izan zen. Hainbat koadriletako 20 lakuntzarrek taularatu zuten antzezlanaren, alkatea barne. Ezkongaien eta gonbidatuen pasarte umoretsuek publikoaren algarak sorrarazi zituzten.



Altsasu festetarako kartel bila

Aurten festak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatuko du Altsasuko Udalak. Helduen eta haurren mailetan deitu da lehiaketa. Aurreneko mailan parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, beti ere, lan originalak direnak. Kartelean, ezinbestean, honako testua agertu beharko du: *Altsasuko festak 2016 / Fiestas de Alsua 2016*. Lanen tamaina A3koa izanen da, edo 70 cm altu eta 50 cm zabal. Aurkezterakoan euskarri gogor baten gainean aurkeztu beharko da. Lanak, plika sistema erabiliz, gailaren 15eko 14:00etara arte aurkeztu daitezke, Iortia kultur gunean. Herri bozketa bidez aukeratu da kartel iragarlea. Haurren mailan, DBH2 bitarteko Altsasuko ikastetxeetako ikasleak lehiaketara lanak aurkeztu ditzakete. Garagarriaren 17rako aurkeztu beharko dira. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Liburuak migratzaileak laguntzeko

Stock eta biltegi arazoengatik argitaletxeak bere *El hombre que arreglaba bicicletas* liburuaren 2.000 ale suntsitu behar zituela jakin zuen idazleak, Angel Gil Chezak. Haiek suntsiketarik berreskuratu zituen baina saldu ezin zituen, banan-banan etiketatatu zituen eta haien truke jendeak emandako dohaintzak ongintzara bideratzea erabaki zuen.

Europarako ametsa bete nahian Greziako kostaldera iristen diren errefuxiatuak laguntzen ari den Proactiva Open Arms gobernuz kanpoko erakundeari bideratzen dio laguntza. Liburuaren ale batzuk Altsasuko Arkatz liburutegira iritsi dira eta borondatearen truke eskuratu daitezke, ez baitaude salgai. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

bazterretik

Izaskun Beunza



Udaberriko loreak

Egun ez da zaila Jerusalemgo Valeroplazan itzala aurkitzea, HQ Architects estudioak diseinutako lore erraldoiei esker. Landare hiritar erakargarri hauek oinezkoen presentzia sumatu orduko loratzen dira, espazio publikoak erabiltzaileen beharrei erantzuna emanez. Behin loratzean 9 metro-ko altuera eta beste hainbesteko diametrodun lau loreek osatzen duten multzoak Warde izena hartzen du. Landare hiritarren hiriko merkaturaren sarbidean daude kokatuta, Jerusalemgo tranbia geltokiaren ondoan. Loreak oinezkoak hurbiltzerakoan puzteaz gainera, tranbia plazara hurbiltzen ari dela ere zabaltzen dira, erabiltzailearen etorreraz jakinaraziz. HQ taldeak proiektua diseinatzekoan plazaren egoera kaxkarra nabarmendu du. Tranbiak espazio publiko bitan banatzeaz gainera, plazak inguruan ez du inolako egi-

tarau osagarriarik eta hori gutxi baltitz, hiriko instalazio elektrikoaren azpiestatzen transformadoreak daude bertan kokatuta. Dena dela, Warde proiektuaren helburua ez da kaos horri aurre egitea izan, hiri espazio publiko indartzea baizik. Loreen funtzionamendua sinplea da. Landarearen sustaiak lur barruan kokatuta dagoen arketa elektrikoa dira, eta energia elektrikoa zurtoinetik gora doa, lorearen ardatzean kokatutako aire konpresorerraino. Azken hau, presentzia termostatoen bitartez, landarearen loratzeaz arduratuko da. Udako egun bero batean oinezko batek itzal unea biltzen badu, gerturatu orduko lorea puztu eta zabalik mantenduko da pertsonak alde egiten duen arte. Tranbia geltokira gerturatzen denean, lau loreak aldi berean zabalduko dira bidaia-ri ohartarazteko trena hartu nahiko balu presa eman beharra delako. Hiri espazioa eta erabiltzaileen arteko erreakzio azkarra da.



Mari Jose ileapaindegia
Arbizu - 948 460 912 - 686 192 252

Eskerrik asko guk 25 urte hoitan ondu zayen guzoi!!!

Musika eta literatura eskutik

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan

Etxarri Aranazko abesbatzak udaberriko kontzerturako literatura hartu du gaitzat. Musikari asko izan dira euren doinuari letra jarzterakoan gogoko idazleen obretara jo dutenak. Haietako hamaarren aukeraketarekin osatu du Etxarri Aranazko abesbatzak egi-



Egitaraua		
Obra	Idazlea	Musika
Tres epitafios	Miguel de Cervantes	Rodolfo Halffter
Para la sepultura de D. Quijote		
Para la sepultura de Ducinea		
Para la sepultura de Sancho Panza		
Full fathom five	William Shakespeare	Ralph Vaughan Williams
Three Shakespeare song. 1.		
Cantique de Jean Racine	Jean Racine	Gabriel Faure
Im Herbst	Klaus Groth	Johannes Brahms
Dos olas	Gustavo Adolfo Becquer	Alejandro Yague
Suite de Lorca	Federico García Lorca	Einojuhani Rautavaara
Se equivocó la paloma	Rafael Alberti	Carlos Guastavino
Tu no sabe inglés	Nicolas Guillen	Emilio Grenet
Te quiero	Mario Benedetti	Alberto Favero
		Mold. Liliana Cangiano
Nerea izango zen	Joxean Artze	Mikel Laboa
		Mold. Javier Busto

taraua. Eta hartan ezin falta aurren euren heriotzaren 400 urterrena bete den Miguel de Cervan-

tes Saavedra eta William Shakespeare. Etziko emanaldiaren ondoren Etxarri Aranazko abesbatzak

Erriberriko abesbatzen topaketan parte hartuko dute, hilaren 28an.

Punk-roka eta hip-hop plazara!

Larunbatean, 23:00etan, Altsasuko plazan

Frenetik taldeak *Guillotina* diskoaren aurkezpena egingen du Xabi Seco bajo-jotzaile altsasaurarren taldea da Frenetik eta hard-core melodikoa eta punk rock estiloa dute. Haiekin Raperos de Emaus eta The Titanians ariko dira. Rape-roek urteko ibilbidea dute. Samplerrak eta bateria programatuak bazterrean utzi eta jendaurrea The Titanians taldeko musikariekin agertzen dira orain.

Barandiaranek Vernereren etorkizuneko kazetariaren istorioa itzuli du

Jules Vernek 1891n Petit Journal egunkariko gehigarrian argitaratu zuen *Kazetari amerikar baten egunaldia 2889an* narrazio laburra. Alberto Barandiaranek euskaratu eta Denonartean argitaletxe nafarrak argitaratu zuen martxo hasieran. Liburuak Iker Serranoren ilustrazioak ditu.

Vernek fikzio-zientziaren bidez 2889. urteko garilaren 25ean, AEBetako hiriburu berrian, Zen-

Argitalpenak

Ez zaizu ahaztu (1998, Susa)
Dolores Ibarruri, Pasionaria (1998, Elkar)
Gaizkileen faktoria (2000, Euskaldunon Egunkaria)
Mundu txikia (2005, Susa)
Postkronikak (2009, Elkar)
Veleia afera (2010, Elkar)
Vera Candidaz dakidana (2011, Alberdania)

tropolisen, Earth Herald egunkariko zuzendariaren lanegun baten berri ematen du. Egunkari amerikarrak eragin handia du eta zuzendariak munduko agintari guztiek harengana aholku eta mesede eske jotzen dute. Idazle frantziarrak etorkizuneko gizartea klase arteko alde handiak iragartzen ditu, baita makina bat aurkikuntza teknologiko ere: Internet, garraio lasterra eta beste. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



Baztango tragedia eszenara

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Zarrapastra teatro talde iruindarrak Baztango kondaira bat ekarriko du Altsasura: *Urtsua, leyenda de luz y niebla*. Nieves Oteiza taldekideak mendez mende transmititu den Baztango Urtsuaren kontakizunean oinarrituta idatzitako antzezlan. Oteizak gertaera 1700eko garagarriaren 22an eta 23an kokatu du. Nafarroa Behereko nobleziako alaba batekin, Lantaina jauregiko Juanarekin, ezkonduko da Arizkungo Urtsua jauregiko oinordekoa. Ezkondu eta egun berean senarrak haurdunaldiaren berri izan zuen. Harrotasunak minduta senarrak emaztea hilko du. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Golden Apple Quartet azken ikuskizunarekin bisitan

Domekan, 19:00etan, Olatzagutiako kultur etxean

Golden Apple Quartet laukoteak irailean mustu zuen *Mundo intrépido* azken ikuskizuna ekarriko du Olatzagutiara. Baita berezkoa duten umorea eta musika. Telebistetan ohikoak diren naturari buruzko dokumentalen itxura du ikuskizun berriak. Probinztietako musikariei buruzko telebista dokumentala aitzakia-tzat hartuta, denetariko doinu eta kantuak ekarriko dituztelau abeslariak: rock, opera, txantxa, swing, flamenko... Antzezpena eta dantzarekin osatzen du laukoak ikuskizuna. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Nazabalekin bi hitzordu

Gaur, 19:30ean, mustuko du erakusketa. Ostegunean, berriz, zuzeneko margotze saioa egingen du erakusketan bertan, 19:30ean

Hiru urteren ondoren Itziar Nazabalek asteartean erakusketa zabaldu zuen Altsasuko Iortia kultur gunean. Loreen serie berriko lanak dira ikusgai daudenak, propio erakusketarako eginak. Seriea bera joan den urtean hil zen amona omentzeko modua da Nazabalendako. Joan den urtean hura hil ondoren dolu garaia ezin sortu pasa zuen Nazabalek. “Amonari esker sortutako” serieko koadroak dira ikusgai daudenak.

Loredun erakusketa gaur mustuko du margolariak, 19:30ean. Aurkezpenarekin batera, gaur,



performace prestatu du. Nazabal berarekin batera, Irantzu Gonzalez dantzariak eta Jorge Cordon piano-joleak parte hartuko dute. Aurrenekoarekin aritu da margolaria eta lotura ona dute. Cordonekin estreinakoa du eta bat egi-

tea ederra izan dela adierazi digu margolariak. Berak azken urtean bizitakoaren “irudikapen kontzeptuala” izanen da hirurek eskainiko dutena. “Nik laguntza eskar egingen ditut. Itzaletatik aterata “amona” etorri eta indarra eman eta sormenera bideratuko dit”. Azaldu digu labur. Mustutzea despeditzeko “gaiarekin lotutako” auzatea izanen da.

Zuzenean margotzen

Azken erakusketan egin bezala, Nazabal zuzenean pintatzen ikusteko aukera izanen da. Cordonen piano doinuen erritmora musika sentipenak mihisera aterako ditu Nazabalek. Hitzordua ostegunean da, 19:30ean, Iortia kultur gunean. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Saritua

Altsasuko Dendarien Elkarteak emandako 30 euroko erosketa txartela eta Xurru-tek, Alde Zaharreko tabernarien elkarteak emandako ardo botilak zozketatu zituen. Juani Cobos altsasuarrarendako izan ziren sariak.

FLORES S.L.

Nafarroako betiko txistorra

CARNICERIA I. ARREGUI

HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

Herriko plaza z/g **LAKUNTZA**

Sakanako hiltegi-
hildako haragia

Etxeko obradorea:
tripota
tripotxa
mihia
kalluak
saltxitxak
frituak

G

asteko >> : eguraldia

ostirala

euria: 94%

Min: 8 Max: 13

larunbata

euria: 97%

Min: 9 Max: 13

igandea

euria: 57%

Min: 8 Max: 13

astelehena

euria: 15%

Min: 7 Max: 14

asteartea

euria: 15%

Min: 7 Max: 14

asteazkena

euria: 20%

Min: 7 Max: 14

osteguna

euria: 27%

Min: 7 Max: 16

temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	26	6.5	44.7
Etbarri A.	25.2	6.3	56.6
Altsasu	24	8.5	27
Aralar	17.3	3.5	29.5
Urbasa	20	6.5	54.2

ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
13	21	29	5

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruneia

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

Ekain berri

>> 11 galdera

Ana Santano

Edoskitzean aditua

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



Herriko festetarako behar duzun guztia

gk KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Noiz hasi zinen edoskitze munduan?

Duela 16 urte nire seme zaharrena jaio zen. Oso gaizki pasa nuen esneasko eskatzen zidalako. Inork ez dizu azaltzen zergatik egiten duen hainbeste negar: kolikoak direla, hortzak direla... Umea jaio-tzen denean ez dago argibide zehatzak ematen dizkizun liburu bat.
2. Noiz hasi zinen prestakuntza jasotzen?

Bigarren umea izan eta gero, 6 hila-bete zituela, askok esaten zidaten titia kentzeko. Kezkatuta, Amagintzara deitzea bururatu zitzaidan, eta laguntza eskaintzen ahal zidan jendea aurkitu nuen. Nik pasatakoa ez dut inorendako nahi, horregatik erabaki nuen prestakuntza jasotzea. Aholkulari hasi nintzen, eta Carlos Gonzalez eta Rosa Jové adituekin ikasi nuen.
3. Ikasketa prozesuak zer eman zizun?

Ikasiz joan nintzen heinean, nire semearekin bizitako akatsak ikusi nituen. Lehen umearekin hain gaizki pasa nuenean ez zen inorese-ri nirekin, ez zidan inork entzun, eta behar hori asetzeko helburua-ekin sartu nintzen mundu hone-tan. Erronka bat izan zen, baina den-borarekin bizitzan gehien betetzen nauen gauzetako bat bihurtu da.
4. Ama eta haurrekin asko ikasten al duzu?

Amari entzun behar zaio lehenik; beraiek zer sentitzen duten jakitea. Gauza on asko ateratzen dituzte eta nik ere asko ikasten dut haiekin.

- Ama eta haur bakoitzetik gauza oso ezberdinak ikasten dira.

5. Boluntario moduan aritzen zara?

Zortzi urtetan Sakanako herrietatik ibili nintzen etxez etxe lagun-tzen. Nahiko nahasia zen, eta azke-nean Altsasun egoitza irekitzea erabaki nuen. Hau amendako txo-ko bat da, berea sentitu dezakete-na. Baina horrek ez du esan nahi honegatik kobratzen dudunik. Hona datorrenak bere borondatea ema-ten du, besterik ez.

6. Ezjakintasun asko al dago edoskitzearen inguruan?

Bai. Finean, umearendako garrantzitsuena edoskitze prozesua da. Erditzeak gehienegun egun bat irau-nen du, baina edoskitzea askoz ere luzeagoa da, eta arazoak badituzu amets gaizto bihurtu daiteke.

7. Zein dira arazorik ohikoenak?

Larruazaleko ildoak edo erroitzak. Mastitisa duten amak ere etortzen dira. Haurren kasuan, umeak pisu baxuagatik ekartzen dituzte. Egundatuetan pisua galtzen dute, eta hori ez du inork azaltzen; guraso-en kezka nagusia izaten da.

8. Hamar urte daramatzazu; aldaketarik antzeman al duzu?

Edoskitzea modan dagoela esan dezakegu. Krisia dago, eta titia ematea munduko gauzarik merke-ena da. Titia ematearen ideia asko aldatu da; lehen sufrimenduare-kin lotzen zen gehiago, eta egungau-zak beste modu batera ikusten dira. Aurreko urtean 230 amei eskaini nien arreta, eta Sakanan erreferen-

tzia bihurtzen ari naiz. Araba eta Gipuzkoatik ere etorri zait jendea. Titia uztea baino lehenago asko pasa dira hemendik eta oso gutxi utzi dute. Belaunaldi aldaketak ere era-gin handia dauka. Implikazio han-dia dago aiten aldetik eta miresga-rria iruditzen zait.

9. Edoskitzearen abantailak?

Ekonomikoki aurrezten duzuna alde batera utzita, edoskitzea haur bat hazteko dagoen modurik natu-ralena da. Amak titia ematen badu, askoz ere lehenago osatzen da erdi-tu eta gero. Lehen hilabeteen hau-rrariesnea emanez gero, ehun mila txerto sartuko bagenizkio bezala izanen litzateke; babes handia har-tzen dute. Emakumeok titian dugun informazio guztia umeari helara-ziko diogu. Titia ematea ez da soi-lik haur bat elikatzea, emozional-kiere prestatuta egon behar da. Ama eta seme-alaben artean lotura bere-zia sortzen da.

10. Osasun zerbitzuak eskaintzen al du honen inguruko ezagutzarik?

Ama guztiek kexa bera dute: infor-mazio eza handia da, ezjakintasun handia, eta baliabide gutxi esku-ra. Sektore askori ez zaio intere-satzen titia ematea. Diru asko sor-tzen da biberioaren inguruan.

11. Honetaz bizitzea gustatuko litzazuke?

Osasun arloan lan egiten dut eta etorkizunean honetan aritzea gus-tatuko litzaidake. Ama batek kez-katuta deitzen banau, beti eskai-niko diot arreta, hau delako bene-tan gustuko dudana.